

Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización

**Arrasateko
Udala**

**Ayuntamiento de
Mondragón**

2002



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA	4
I IRITZIA	5
I.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	5
I.2 Urteko kontuei buruzko iritzia	8
II KUDEAKETAREN ALDERDIAK ETA GOMENDIOAK	9
III FINANTZAREN ANALISIA	16
IV URTEKO KONTUAK	20
INTRODUCCIÓN	29
I OPINIÓN	30
I.1 Opinión sobre cumplimiento de legalidad	30
I.2 Opinión sobre las cuentas anuales	33
II ASPECTOS DE GESTIÓN Y RECOMENDACIONES	34
III ANÁLISIS FINANCIERO	41
IV CUENTAS ANUALES	45



ANEXOS/ERANSKINAK	54
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado.....	54
A.2 Presupuesto y modificaciones presupuestarias	54
A.3 Impuestos, tasas y precios públicos	57
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones	60
A.5 Enajenación de inversiones reales	62
A.6 Gastos de personal	62
A.7 Compras de bienes y servicios.....	64
A.8 Transferencias y subvenciones concedidas	65
A.9 Inversiones reales.....	69
A.10 Créditos de compromiso.....	70
A.11 Inmovilizado material e inmaterial y patrimonio en situaciones especiales.....	71
A.12 Inmovilizado financiero	72
A.13 Variación de activos financieros	73
A.14 Variación de pasivos financieros.....	73
A.15 Pendientes de cobro	75
A.16 Operaciones extrapresupuestarias.....	75
A.17 Tesorería e ingresos patrimoniales	76
A.18 Contratación	78
A.19 Organismo Autónomo Iturbide Egoitza.....	81
A.20 Organismo Autónomo de Deportes Aukea	83
ALEGAZIOAK	86
ALEGACIONES	108
VOTO PARTICULAR	134

Vitoria-Gasteiz, 2004ko urriaren 26a

Vitoria-Gasteiz, 26 de octubre de 2004



SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Epaitegiaren Osokoak oniritzitako Lan programan ezarritakoari jarraiki, Arrasateko Udalaren 2002ko Kontu Orokorraren, Iturbide Egoitza Erakunde Autonomoaren eta Aukea Kirolaren Erakunde Autonomoaren fiskalizazio lana mamitu du, honako atal hauek besarkatzen dituen:

- Legezkotasuna: ezargarria den arautegia bete dela egiaztatzea atal hauei dagokienez: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpidetza eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak eta dirulaguntzen emakida.
- Finantzarioa: Kontu Orokorra ezargarriak zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak honako hauek besarkatzen ditu: Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen egoeraren balantzea, galdu-irabazien kontua eta memoria; baita aurrekontuen likidazioa ere.

Udalari eta bere Erakunde Autonomoei dagokienez, gure lana kanpoko enpresa batek gauzatu duen auditoretzako txostena aztertzea izan da, auditoreen lan paperetan euskarritua dagoela egiaztatuaz eta hainbat proba osagarri edota beharrezko iritzi ditugun auditoretzako beste prozedura batzuk eginez.

- Bestelako alderdiak: lanaren zabalak ez du Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen gastu publikoaren eraginkortasun eta zuhurtasun eta kudeaketa prozeduren gaineko azterketa berariazkorik barne hartzen. Nolanahi ere, fiskalizazio lanean azaleratu zaizkigun huts partzialak Txosten honetako II. idazpuruan zehaztu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren gaineko finantza analisia.

Gogoan izanik Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen legezkotasun hutsak eta ezbetetzeak antzekoak direla, Txosten honetan adierazi ditugun iritziak batera azalduko ditugu.

Arrasateko udalerriak 23.114 biztanle ditu 2002ko urtarrilaren 1ean eta bere antolamenduan, arestian jada aipatutako Udal eta Erakunde Autonomoen gain, Arrasate Garatu, SA sozietate publikoa ere besarkatzen du, Udalaren partaidetza %100ekoa izanik; udalaren esanetan, sozietateak ez du jarduerarik izan 1999an sortu zenez geroztik.

Bestetik, Udalak honako entitate hauetan ere parte hartzen du:

- Deba Garaiko Mankomunitatea
- Gipuzkoako Uren Partzuergoa



I IRITZIA

I.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Sarrerak

- 2002ko urtealdian indarrean dagoen eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga erregulatzen duen Agintaraudi Fiskalaren 12. artikulua, gutxieneko prezioak ezartzen ditu, obra mota bakoitzaren oinarri zergagarria aintzat hartu gabe. Aurreikuspen honek, Udalak aplikatu ez duena, aipatutako Agintaraudi Fiskalaren 9. artikulua eta eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zergari buruzko uztailaren 5eko 15/1989 Foru Arauaren 3. artikulua urratzen ditu, zeinak agintzen duen “zerga honen kuota izango da oinarri zergagarriari zerga-tasa aplikatzearen ondorioa” (ikus A.3).
- Hiri izaerako lursailen balioa gehitzeari buruzko zergaren likidazioetan aplikatu den tipo zergagarria (%5) Udalaren Osokoak oniritzi zuen eta ez zen indarrean sartu ez zelako Gipuzkoako Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman. Tipo zergagarri hau urtealdi horretan indarrean zegoen Agintaraudi Fiskala gogoan hartu izan balitz legez ezargarria izango zatekeena baino baxuagoa zen (%7) (ikus A.3).
- Udalak tarifa bakar batean biltzen ditu edateko ura hornitzetik, estolderia zerbitzuetatik eta hondakin uren saneamendu zerbitzuetatik eratorritako sarreraren kontzeptu guztiak, hiru kontzeptuei dagokion balio erantsiaren gaineko zerga aplikatuz. Ez da egokia saneamendu eta estolderia tasei BEZ eragitea, ez baitzaio abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 7. art.an erabakitakoari egokitzen, zeinaren arabera Gipuzkoako Lurralde Historikoaren arautegi fiskala Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 37/1992 Legeari egokitzen baitzaio; honek BEZaren eragin esparruaz kanpokotzat jotzen ditu erakunde publikoek zuzenean egindako ondasun eta zerbitzuen emakidak, ordainik gabe, edo zerga izaerako ordain bitartez (ikus A.3).
- Iturbide Egoitzan zerbitzuak emateagatiko tasak arautzen dituen Agintaraudi Fiskalak agintzen du, behar hainbateko baliabide ekonomikoak ez dituzten eta kuota osorik ordain ez dezaketen egoiliarrek derrigortuta daudela zorra aitortzen duen agiri bat gauzatzera, egoiliarrek Erakundearekiko dituen obligazio multzoa besarkatuko duena eta konprometitutako ondarea identifikatuko duena. Erakundeak ez du zorra aitortzen duen agiria gauzatzeko. (ikus A.19).



Langileria

- Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen langileriaren ordainsari egitura ez zaio egokitzen Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legean eta Euskal Administrazio Publikoen Funtzionarioen Ordainsariei buruzko 343/1992 Dekretuan agintzen denari, izan ere, Euskadiko Toki eta Foru Administrazioaren Langileriaren Enplegu Baldintzak Arazten dituen Erabakian (ARCEPAFE) finkatutako egitura aplikatzen baitu, Destino osagarria eta Berariazko osagarria bereizi gabe. Bestetik, Lanpostuen Zerrendak (LZ) ez du zehazten lanpostu bakoitzak esleitua duen Berariazko Osagarria, EFPLren 15.2.c art. urratuz (ikus A.6, A.19 eta A.20).
- 144/1999 Erret Dekretuan aurreikusitakoa aplikatuz, gaur egun 113/2002 Erret Dekretuak ordezkatzeko duena, txosten hau idatzi dugun datan Udalaren lau langile eta Aukea Kirolaren Erakunde Autonomoaren beste langile bat zatizko erretiro egoeran daude. Langile hauek zatizko lantsaioan egiazko zerbitzurik ez betetzeko eskaria egin ondoren, Udalak kontratua amaitu bitartera arte ordaindutako aparteko lizentzia eman die. Lizentzia honek ez du beharrezkoa den legezko babesik, izan ere, aurreikusitako suposamenduak, hau da, kontratua amaitu arte ordaindutako aparteko lizentziak ez baitu lekurik administrazio publikoen zerbitzura diharduen langileriari ezargarria zaion araubide juridikoan (ikus A.6 eta A.20).
- Honez gain, Aukea Kirolaren Erakunde Autonomoko langileari dagokionez, aurrez adierazitako egoerara egokitu ahal izateko, Erakundeak lanpostuaren konfigurazioa aldatu zuen, funtzionario izatetik lan kontratupeko langile izatera aldatuz, Euskal Funtzio Publikoaren Legean aurreikusitako lanpostuak betetzeko baliabideak batere gorde gabe (ikus A.20).

Kontratazioa (ikus A.18)

- San Frantzisko komentua zaharberritzeko lanen zuzendaritza eta Santa Teresa ikastola urbanizatzeko lanak zuzenean kontratatu dira, hurrenez hurren, 48 eta 46 mila euroko zenbatekoarekin, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratuan finkatutako prozedura eta esleipen moldeak alde batera utzita (APKLTB).
- Obenerreka kalean ur sareak eta atzeraemanguneak berritzeko lana 72 mila euroko zenbatekoarekin esleitu dira, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez; esleipen molde hau, ordea, ez da egokia APKLTBn xedatutakoari jarraiki.
- Telematika sarea eta euri-urak eroateko bideen eraiketa gauzatzeko udalak kasu bakoitzean bost kontratu zuzenean esleitu ditu, hurrenez hurren, 131 eta 101 mila euroko pilatutako zenbatekoarekin. Bi suposamenduetan kontratuaren xedea zatikatu da, aribide hau euskarrituko duen justifikaziorik ez dagoela, dagozkion publizitate eta lehia printzipioak eta esleipen prozedura eta esleipen moldeak urratuz (APKLTBren 68. artikulua).
- Monterrón Erguin oinezko zumardiko lanak, 1.117 mila euroko zenbatekodunak, Udalak esleitu zituen, kontratistak aurkeztutako proposamenak Administrazio baldintza



partikularren pleguan (ABPP) finkatutako lizitazio aurrekontua gainditzen zuen arren. Eskaintza hau atzera bota behar zatekeen, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 84. artikulua agintzen duenari jarraiki (APKLEO).

- Ondotik zehaztutako espedienteetan exekuzioari eutsi zaio, horiek babesten zituen kontratua iraungia zelarik, jada betea zegoelako: etxerako laguntza zerbitzu publikoaren kudeaketa, Udalak 1997an aleko prezioekin esleitutakoa, 2002an 636 mila euroko exekuzioa izan zuena; garbiketa eta sukalde zerbitzuak eta arropa garbitu eta alokatzekoa, Iturbide Egoitza Erakunde autonomoak 1996an aleko prezioekin esleitutakoa, 2002an, hurrenez hurren, 268 eta 71 mila euroko exekuzioa izan zutenak.

Dirulaguntzak (ikus A.8)

- Udalak dirulaguntzak eman ditu, zuzenak edo hitzarmenen bitartekoak, 516 mila euroko zenbatekoarekin; horiek diruz lagundutako objektua APKLTBn araututako kontratuetakoren batekin bat dator. Aribide honek eragiten du gastu publikoa Administrazio Publikoen kontratazioan buru egiten duten publizitate, lehia, berdintasun eta ez diskriminazio printzipioetara ez egokitzea.

Epaitegi honen ustetan, aurreko idatz-zatietan azaldutako ezbetetzeak alde batera, Arrasateko udalak eta bere Erakunde Autonomoek zuzentasunez bete dute 2002ko urtealdian bertako jarduera ekonomiko-finantzarioa arautzen duen lege arautegia.



I.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- Epaitegi honen ustetan egin behar ziratekeen zuzenketek ondotik zehaztutako eragina dute Arrasateko Udalaren 2002ko urtealdiko aurrekontuaren Likidazioan, egoeraren balantzean eta Fondo Propioetan abenduaren 31n:

Kontzeptua	Mila euro			
	___Aurrekontuzkoa___ Diruzaintza gerakina	Ondarezkoa		Fdo.Propioak
		Aktiboa	Pasiboa	
02.12.31n erregistratu behar ez ziratekeen eskubide edo dirusarrerak:				
- Urtealdiaren emaitzara kapital dirulaguntzen eskualdaketa soberazkoa (A.4)	-	-	337	(337)
- Formaldutako eta erabili gabeko mailegua (A.14)	(1.803)	(1.803)	(1.803)	-
Bestelako zuzenketak:				
-Erregistratu gabeko sarrerak, ura hornitu eta hiri hondakin solidoak jaso eta errausteagatik, 2002ko 4. hiruhilekoa (A.3)	608	608		608
GUZTIRA	(1.195)	(1.195)	(1.466)	271

- Egoera balantzearen ibilgetu kopuruak ez du islatzen 2002ko abenduaren 31n ondasun eta eskubideen egiazko egoera. 1995ean, egoeraren balantzeari une horretan zegoen ibilgetua txertatzeko xedearekin, udal zerbitzu teknikoek udalaren ondasunen balio-neurketa egin zuten; horretarako, ordea, ez zuten erabili erosketa prezioa edo produkzio kostua, ibilgetua balioztatzeko arauak eskatzen duten legez. Bestetik, 1994ko abenduaren 31 baino lehenago guztien erabilerarako emandako ondasun multzoa zero balioarekin islatu da.
- 1999an 60 mila euroko kapital sozialarekin udal lurra kudeatzeko sortu zen Arrasate Garatu, SA udal sozietate publikoak, ez ditu 2002ko urtealdiko Urteko Kontuak gauzatu.

Epaitegi honen iritzia da, aurreko salbuespenak alde batera, Arrasateko Udalaren Kontu Orokorrak alderdi esanguratsu guztietan erakusten duela 2002ko urtealdiko jarduera ekonomikoa, ondarearen isla leiala, finantza egoera 2002ko abenduaren 31n eta data horretan amaitutako urteko urtealdiari dagozkion bere eragiketen emaitzak.



II. KUDEAKETAREN ALDERDIAK ETA GOMENDIOAK

Aurrekontua eta Kontabilitatea

- Aurrekontua

Udalaren Osokoak 2002ko urtealdirako aurrekontua hasiera batean urte horretako martxoaren 25ean oniritzi zuen, behin-betiko oniritzpena 2002ko maiatzaren 16an Gipuzkoako Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman zuela (ikus A.2).

Udalaren Osokoak behin-betiko aurrekontua dagokion urtealdiaz aurreko urteko abenduaren 31 baino lehenago oniritzi behar du, erreminta erabilgarri eta eraginkorra izan dadin, Toki Ogasunak arautzen dituen 39/1988 Legearen 150.2 artikulua eta Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko 500/1990 EDren 20.2 artikulua xedatzen duten moduan.

- Kontularitzako erregistroa

Aurrekontuaren exekuzioak ez ditu “Langileen Gastuak” 1. kapitulari dagozkion gastuaren baimen eta erabilera faseak besarkatzen; aldiz, Udalak eta bere Erakunde Autonomoek nominaren zenbatekoa hileroko gastu modura erregistratzen dute.

Bestetik, Udalak honako erregistro hauek egiten ditu:

- Bertako langileen bizitza aseguruak “Funtzionamendu gastuak” 2. atalburuan, udal aseguru guztiekin batera.
- Udalean ordezkaritza duten talde politikoei egiten zaizkien transferentziak, 157 mila euro egiten dutenak, langileen gastuen kapituluan.
- 647 mila euro “Transferentzia eta dirulaguntza arruntak” 4. kapituluan, Gipuzkoako Uren Partzuergoari uraren kontsumoaren ordainketa kontzeptuan (ikus A.8).
- “Zeharkako zergak” 2. kapituluan Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga (EIOZ), hirigintza lizentziak emateagatiko tasarekin batera, zerga eta tasa bereizi gabe.

Erregistroak zuzena izateko, honako hauek egin behar ziratekeen: langileen bizitza aseguruak “Langile Gastuak” 1. kapituluan kontuetaratzea, kapitulu horrek Udalak kontzeptu horrekin egiten dituen gastu guztiak jaso ditzan; talde politikoei egiten zaizkien transferentziak “Transferentzia eta dirulaguntza arruntak” 4. kapituluan erregistratzea; uraren kontsumoak eragindako gastua “Funtzionamendu gastuak” 2. kapituluan erregistratzea eta azkenik, EIOZ eta hirigintza lizentziak emateagatiko tasa, aurrekontuan bereizirik erregistratzea, dagokion sarreren egoerako 2. eta 3. kapituluetan.



Urtealdi bakoitzeko abenduaren 31n, Udalak guztien erabilerarako eskualdaketa modura erregistratzen ditu azpiegitura eta urbanizazioan egindako inbertsio guztiak, dagozkion ibilgetuko kontuak zeroko saldoarekin utziz, inbertsio horiek amaituak dauden edo ez alde batera, eta emakida hori euskarrituko duen agiri egiaztagarririk batere ez dagoela (ikus A.11). Honako hau zuzentzeak Ibilgetuaren saldoa gehitzea eta zenbateko berean “Guztien erabilerarako emandako Ondarea” idazpurua murriztea ekarriko luke.

Inbertsio bat erabilpen orokorreko modura erregistratzeko ezinbestekoa da amaitua egotea. Horretarako, beharrezkoa da urtealdi bakoitzaren amaieran dagozkion departamentu teknikitik edo Udalaren Idazkaritzatik amaitu den urtealdian erabilpen orokorrerako eman den azpiegitura multzoa zerrendatuko duen egiaztagiria eskuratzea, urtealdian edo lehenagoko urtealdietan gauzatu direnak. Kontularitza departamentuak emandako informazioarekin erabilpen orokorrerako aipatutako emakida baloratu eta kontularitzako eragiketa egingo da, kontrakontu modura erabiliak “Erabilpen orokorrerako emandako ondarea”.

Barne Kontrola

- Udalaren Artekariak ez ditu Erakunde Autonomoetan Toki Ogasunak arautzen dituen 39/1988 Legearen 185.2 art.an eta nazio mailan jarduteko gaitasuna duten Toki Administrazioen funtzionarioen Araubide Juridikoari buruzko 1174/1987 EDren 4.1.i) artikuluan aurreikusitako artekaritza egiteko guztiak betetzen.

Konpromiso kredituak

- 2002an zehar urteanitzeko izaeradun gastu konpromisoak hartu dira 918 mila euroko zenbatekoarekin, exekuzioari urtealdian ekin ez zaiola, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen 155. artikulua eta Aurrekontu Exekuziorako Udal Arauaren 13. artikulua urratuz.

Sarrerak

- Tasak eta bestelako sarrerak

Udalak hiruhilero egiten dituen ur eta zaborraren zerga erroldetatik bi soilik oniritzi dira Alkatetzaren Dekretu bitartez eta Gipuzkoako Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman.

Zerga errolda guztiak horretarako eskumena duen Atalak oniritzi behar ditu eta behar den modura argitaratu behar dira dagozkion Agintaritzaren Aldizkarian.

Saneamendu tasaren helburua azpiegitura hidraulikoak finantzatzea da. Kontzeptu honen izenean, uraren sarearen erabiltzaileei ura kontsumitzeagatiko zenbatekotik ordainagiria



%25 gehitzen zaie eta sare horren erabiltzaile ez direnentzat tarifa bat dago ezarria m³ko isurketaren arabera; udalak, ordea, ez du hori kobratzen isurketa horiek kontrolatuko dituen tresnarik ez daukalako.

Udal uren sarearen erabiltzaile ez direnek egindako isurketen bolumena, bereziki berezko sarea duten industriek egindakoa, kontrolatu egin behar da, hartara, zerbitzuaren onuradun guztiei tasa dagokien heinean aplikatzea bideratzeko.

Aukea Kirolaren Erakunde Autonomoaren “Tasak eta bestelako sarrerak” 3. kapituluaren erregistratutako “abonatuen” kontzeptuan kibatutako eskubideek, 276 mila euro egin dituzte (ikus A.20). Hala eta guztiz ere, ezin justifikatu izan da aplikatutako tarifen zuzentasuna, ez baitago abonatuaren ezaugarriari erreferentzia egingo dien eskurako euskarririk.

Langileria

- Ordainsari igoera

Udalak bere eta Erakunde Autonomoen zerbitzuko langileen ordainsariak 2002ko urtealdian %3 igotzeko erabakia hartu zuen, Artekariak eta Udal idazkariak jarritako oztopoak oztopo, zeinetan ohartarazten zuten aipatutako erabakiak urratu egiten zuela Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean 2002rako ezarritako muga. Erabaki horrek agintzen zuen urte horretako ordainsariak ez zutela %2tik gorako igoaldirik izango (ikus A.6, A.19 eta A.20).

- Erakunde Autonomoetara atxikitako langileria

Udalaren hainbat langile Iturbide Egoitza Erakunde Autonomoan (2 funtzionario) eta Aukea Kirolaren Erakunde Autonomoan (1 funtzionario) atxikita daude eta zerbitzu ematen dute; hauen lanpostuak Erakundearen Lanpostu Zerrendan ageri dira. Langile hauen nominak, Gizarte Segurantzaren gastuak eta Elkarkidetzari egindako ekarpenak Udalak ordaintzen ditu eta gastu hau “Transferentzia eta dirulaguntza arruntak” 4. kapituluaren erregistratzen du. Erakundeek, berebat, sarrera “Transferentzia eta dirulaguntza arruntak” 4. kapituluaren erregistratzen du eta gastua, berriz, “Langile gastuak” 1. kapituluaren.

Egitatezko egoera hau Erakunde Autonomoetan sortutako langile egiturari egokitzeko beharrezko izapideak bideratzea komeni da, dagozkion Lanpostu Zerrenden bitartez.



- Lanpostuen Zerrenda (LZ).

Udalak okerbidez barne hartu du aldi baterako langileria bere LZren baitan.

LZn barne hartu behar diren lanpostuak aurrekontuan zuzkidura duten haiek dira eta bereizi egingo dira funtzionarioentzat gordetako lanpostuak, lan kontratu finkodunentzakoak eta behin-behineko langileenak. Inola ere ez dira barne hartuko aldi baterako lan kontratuko langileentzako gordetakoak.

- Gauzazko ordainsariak.

Udalak eta Erakunde Autonomoek ez dizkiote Foru Ogasunari aitortzen bertako langileei mailegu eta bizitza aseguru kontzeptuan ordaintzen dizkieten gauzazko ordainsariak.

- Langileei ordainketak

Langileari maileguak ematen zaizkionean, Udalak eta Aukea Kirolaren Erakunde Autonomoak horiek guztiak "Finantza aktiboen aldaketa" 8. kapituluko eskubide aitortu modura erregistratzen dituzte ematen dituzten urtealdian. Toki entitateen aurrekontuen egitura arautzen duen 1989ko irailaren 20ko Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Aginduak zehazten duen moduan, kapitulu honetan emandako mailegu edo aurrerakinen itzulera kontzeptuan urtealdian eskuratuko diren baliabideak soilik erregistratu behar dira.

Kontratazioa (ikus A.18)

- Udalak zein bere Erakunde Autonomoek esleitu dituzten aztertutako espedienteetarik batean ere ez da ageri espedienteari hasiera ematea oniritzen duen erabakia (APKLTBren 67. artikulua), eta ez dira barne hartu administrazio baldintza partikularren pleguak oniritzeko beharrezko diren aurretiazko txostenak (ABPP); honek guztiak APKLTBren 49.4 artikulua eta Toki Araubidearen Testu Bateratuaren 113.1 artikulua urratzen du.
- Udalak 185 mila euroan esleitutako 2 zerbitzu kontratutan, eta Erakundeek 137 mila euroan esleitutako 6tan, ez da ageri zerbitzu sustatzailearen txosten justifikagarriarik, lana gauzatzeko ezintasuna edo behar hainbateko baliabide eza eta/edo baliabide egoki eza, edota administrazioak eskura dituen baliabideak ugaritzeko komenigarritasun ezari buruzkorik, APKLTBren 202. artikulua eskatzen duen moduan (28 eta 29 eta 30, 31, 32, 34, 35 eta 36. espedienteak).
- 7.767 mila euroan esleitutako 6 obra espedientetan, arazorik gabeko exekuzioa gauzatu ahal izateko, errealitate geometrikoa eta lursailen erabilgarritasuna egiaztatuko duen proiektuaren aurretiazko birplanteaketarik ez da egin, APKLTBren 129. artikulua urratuz (1, 2, 3, 4, 5 eta 7. espedienteak).
- Bost obra espedienteren kontratazio mahaiak, bata zerbitzu publikoa kudeatzekoa, eta bestea, zerbitzuena, 7.695 mila euroan, hurrenez hurren, aleko prezioen arabera eta 139 mila euroan esleitutakoak, ez ditu bokal modura idazkaria eta/edo artekaria barne hartzen, APKLTBren 9.3 Xedapen Gehigarria urratuz. Bestetik, obra espediente batean eta



zerbitzuko bitan, hurrenez hurren, 72 eta 61 mila eurotan esleitutakoetan, ez da kontratazio mahairik existitzen eta esleipen proposamenak zuzenean dagokion udal batzordeak gauzatu ditu (1, 2, 3, 4, 5, 18 eta 29 eta 7, 23 eta 28 espedienteak).

- 7.494 mila euroan esleitutako 4 obra espedientetan eta 484 mila euroan esleitutako zerbitzuen kudeaketako espediente batean, ez da barne hartu kontratuak aldatzeko beharrezkoa den aurretiazko txosten juridikoa, APKLTBren 59.2 artikuluan erabakitakoa urratuz .

Kontratuak zuzen esleitzeko ezinbestekoa da dagokion espedientea aurrez izapidetzea, APKLTBn finkatutakoari jarraiki.

- Udalak esleitutako 5 obra espedienteren, zerbitzuak kudeatzeko 4 espedienteren eta zerbitzuen bi espedienteren administrazio baldintza partikularren pleguek, hurrenez hurren, 7.695, 1.451 eta 185 mila eurotan esleitutakoak, eta Erakunde Autonomoek 137 mila eurotan esleitutako zerbitzuen kudeaketako espediente baten eta zerbitzuen 5 espedienteren pleguek, besteak beste, lehiatzaileen esperientzia eta/edo kaudimenean oinarritutako esleipen irizpideak barne hartzen dituzte, eta ez eskaintzen ezaugarri teknikoetan oinarritutakoak (1, 2, 3, 4, 5, 18, 19, 20, 22, 28 eta 29 eta 30, 31, 33, 34, 35 eta 36. espedienteak).

Honez gainera, Udalak egindako 2 obra espedienteren, zerbitzuak kudeatzeko 3 espedienteren eta zerbitzuen bi espedienteren esleipen proposamenean (hurrenez hurren, 4.739, 1.451 eta 154 mila eurokoak) eta Iturbide Egoitza Erakunde Autonomoak alekako prezioen arabera esleitutako zerbitzu espediente batean, ABPPn zehaztutako irizpide objektiboak azpi-irizpideetan egituratu dira eta horiei ponderazio jakin bat esleitu zaie. Azpi-irizpide hauek eta/edo horien ponderazioa ez daude pleguetan jasoak (2, 4, 19, 20, 22, 23 eta 29 eta 30. espedienteak).

ABPPetan barne hartutako hautaketa irizpideek kontratuaren xedearekin lotuta egon behar dute eta ez dituzte kontratisten proposamenak zuzenean balioztatuko dituzten alderdiak jaso behar.

Bestetik, nahiz formalki APKLTBn ezarritako obligazioa bete egiten den, ABPPren karatulan esleipen irizpideak eta horietako bakoitzari egotzitako ponderazioa bereizten diren aldetik, ezinbestekoa da baloratuko diren alderdi zehatzak eta horien ponderazioa egoki definituak azaltzea pleguetan; hartara, lehiatzaileek lizitazio unean segurantzaz osoz jakin ahalko dute zein den eskuratuko duten baloraketa zehatza; hau guztia, kontratazio publikoan buru egin behar duen gardentasun ahalik eta handiena lortzearen.

- Iturbide Egoitza Erakunde Autonomoak zaharren egoitzari elikagaiak hornitzeko zuzeneko erosketa moldea erabili du 17 hornitzaileekin, 2002an guztira 139 mila euro egin dituen;



honekin kontratuaren xedea zatikatu da, aribide hau euskarrituko duen behar hainbateko justifikaziorik ez dagoela.

- Iturbide Egoitza Erakunde Autonomoak esleitutako bi zerbitzu espedientetan ez da esleipena dagokion aldizkarian argitaratu eta horrek APKLTBren 93. artikulua urratzen du. (30 eta 31. espedienteak). Bestetik, 4 obra espedientetan eta zerbitzuak kudeatzeko beste batean, udalak 6.578 mila euroan esleitutakoak, eta Erakunde Autonomoek esleitutako espediente bakar batean ere ez dira agintaritze aldizkariko iragarkiak kobratu, nahiz eta APKLk kontratistak obligazio hau zuela zehazten zuen (1, 2, 4, 5 eta 18 eta 30, 31, 32, 33, 34, 35 eta 36).
- 6.201 mila euroan esleitutako 3 obra espedientetan, kontratu aldaketak bideratu dira dagokion dokumentu administratiboa bideratu gabe, APKLTBren 101.2 artikulua agintzen duen moduan (1, 2 eta 3 espedienteak).
- Obra espediente batean, zerbitzuak kudeatzeko 3 espediente eta zerbitzu espediente bat, udalak hurrenez hurren 72, 853 eta 139 mila euroan esleitutakoak, eta iturbide Egoitza Erakunde Autonomoak esleitutako bi zerbitzu espedientetan, ez da kontratuaren eranskin modura administrazio baldintza partikularren pleguaren alea eta agindu teknikoaren alea txertatu, Administrazio Publikoetako Kontratuaren Legearen Erregelamendu Orokorraren 71.9 artikulua agintzen duen moduan (APKLEO) (7, 18, 19, 20 eta 29 eta 30 eta 32 espedienteak).

Kontratazio administratiboa guztiz egintza formala da eta APKLTBren 54. eta 101. artikuluetan finkatutako dokumentuak betetzeko araua gorde behar da.

- 7.494 mila euroan esleitutako 4 obra espedientetan, finantzaketa ez zaio horien exekuzio erritmoari egokitu, APKLTBren 14.3 artikuluan erabakitakoa urratuz (1, 2, 3 eta 4. espedienteak).

Kontratuaren finantzaketa zerbitzuaren exekuzioak eskatzen duen erritmora egokitu behar da eta horretarako, kontratazio atalak beharrezko diren neurriak bideratu beharko ditu urtekoen programazio denborari eta exekuzio aldiari egokitzeko.



- Zerbitzuak kudeatzeko espediente batean eta bi zerbitzu espedientetan, Udalak eta Aukea Kirolaren Erakunde Autonomoak aleko prezioen arabera esleitutakoak, prezioen berrikusketak ez ditu kontratazio atalak berariaz oniritzi (18, 35 eta 36 espedienteak).
- Zerbitzuak kudeatzeko espediente bat eta zerbitzu kontratu bat, Udalak, hurrenez hurren, aleko prezioen arabera eta 139 mila euroan esleitutakoak eta bere Erakunde Autonomoek esleitutako 6 zerbitzu kontratu, guztiak ere isilbidez luzatu dira, APKLTBren 67.1 artikulua agintzen duenaren arabera, luzapenak berariazkoa izan behar duenean (18 eta 29 eta 30, 31, 32, 34, 35 eta 36 espedienteak).
- San Frantzisko Komentua zaharberritzeko obren kontratuak, 3.446 mila euroan esleitutakoak, aldaketa egin ondoren jatorrizko aurrekontuaren gainean %61,87ko igoaldia izan du. (2. espedientea).

Dirulaguntzak (ikus A.8)

- Udalak 183 mila euroan emandako hainbat dirulaguntza arautzen dituen arautegiak ez ditu ondoko alderdiak besarkatzen: onuradunek dirulaguntza eskuratzeko bete behar dituzten betekizunak; dirulaguntzen zenbatekoa; horiek emateko irizpide objektiboak edota zerga obligazioetan eguneratuta daudelako ziurtagiria.
Dirulaguntzen emakida eta kudeaketa arautzeko helburuarekin, 2004ko maiatzaren 31ko Udalaren Osokoak alor hau arautzen duen ordenantza oniritzi du.
- Honez gain, 449 mila euroan emandako dirulaguntzei dagokienez, erakunde onuradunek ez dute egoki justifikatu diruz lagundutako gastua egin izana.



III FINANTZAREN ANALISIA

Udal Administrazioek etorkizunean egingo dituzten inbertsioen balizko finantzaketa iturriak honako hauek dira: urtealdi bakoitzean sortzeko gai diren aurrezki garbia; diruzaintza gerakina eta dirulaguntza bidez edo zorpidetza bidea erabilia eskuratuko duten kanpo finantzaketa.

Udalak azken urtealdietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera honako taula honetan xehekatu da. Konparaziozko ondorioetarako, Gipuzkoa eta EAEko 20.000 eta 50.000 biztanle bitarteko udalen (Udalari dagokion biztanleria maila) batez bestekoaren 2001eko urtealdiko datuak barne hartu dira.

FINANTZAREN ANALISIA	Mila euroan			Biztanleko/euroan				
	Urtea			Urtea			Erref.	
	00	01	02	00	01	02	Gipuz.	EAE
Zergak (1. eta 2. kap.)	5.827	5.109	5.245	245	219	227	194	201
Tasak, prez. eta ondare sarr. (3. eta 5. kap.)	4.404	3.887	3.717	186	166	161	147	131
Jasotako transf. eta dirul. arruntak (4. kap.)	9.761	9.788	10.206	412	419	441	413	441
A. Sarrera arruntak	19.992	18.784	19.168	843	804	829	754	773
Langileria gastuak (kap. 1)	4.298	4.705	5.203	181	202	225	246	231
Erosketak, zerbitz. eta dirul. (2. eta 4. kap.)	7.736	8.274	8.803	326	354	381	337	317
B. Funtzionamendu gastuak	12.034	12.979	14.006	507	556	606	583	548
Aurrezki gordina (A-B)	7.958	5.805	5.162	336	248	223	171	225
- Finantza gastuak (kap. 3)	374	350	223	16	15	10	18	10
Emaitza arrunta	7.584	5.455	4.939	320	233	213	153	215
- Maileguen amortizazioa (kap. 9)	1.123	1.157	1.240	48	49	54	56	44
Aurrezki garbia	6.461	4.298	3.699	272	184	159	97	171
Jasotako kapital dirulaguntzak	2.343	1.063	982	99	45	43	34	39
Inbert. garb. (6. kap. garbia eta 7. kap. gtu.)	5.342	9.280	7.448	226	397	322	220	163
Kapital eragiketen emaitzak	(2.999)	(8.217)	(6.466)	(127)	(352)	(279)	(186)	(124)
Diruzaintza gaidikina	6.845	3.332	2.846	289	143	123	177	308
Erabili gabeko zorra	-	-	1.803	-	-	78	-	-
Diruzaintza gaidikina	6.845	3.332	1.043	289	143	45	177	308
Zorpidetza	7.747	6.572	7.135	327	281	309	310	151
Erabili gabeko zorra	-	-	1.803	-	-	78	-	-
Erabilitako zorpidetza	7.747	6.572	5.332	327	281	231	310	151

Iturria: HKEEren txostena "Euskadiko toki entitateak 2001".

OHARRA: "Gipuz." erreferentzia, 20.000 eta 50.000 biztanle bitartean dituzten Gipuzkoako udalen datuei dagozkie.

"EAE" erreferentzia, 20.000 eta 50.000 biztanle bitartean dituzten EAEko udalen datuei dagozkie.

Sarrera arruntak : %6,04 murriztu dira 2001ean 2000ko urtearekiko eta %2,04 gehitu dira 2002an aurreko urtealdiarekiko. 2002an sortu diren aldaketa nagusiak 2001eko urtearekiko sarrera arruntan kapituluetan honako hauek izan dira:



- Zerga zuzenetan aitortutako eskubideen igoera (%6,66), besteak beste, arrazoi hauek direla tarte gertatu da:
 - Hiri izaerako lursailen balioaren igoeraren gaineko zerga kontzeptuan aitortutako eskubideek %33,06 egin dute gora, zergaren oinarri zergagarritan izandako igoera handien ondorioz, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2001ean gauzatu zuen katastroaren berrikusketatik eratorritakoak, 2002ko urtealdian aplikatu dituenak. Aplikatu den tipoak ez du inongo aldaketarik jasan (%5).
 - Trakzio mekanikoa duten ibilgailuen gaineko Zergaren kontzeptuan aitortutako eskubideak %8,33 igo dira, ezargarri diren tarifetan izan diren igoaldiek eta parke mugikorraren zaharberritzeak eraginda, zeinak potentzia fiskal handiagoko ibilgailu motetarako joera ekarri duen eta honenbestez, zerga ordainketa ere handiagoa den.
 - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga kontzeptuan aitortutako eskubideen igoera, ezargarria den udal koefizienteak %7,8ko igoaldia izatearen ondorioz.
 - Hiri izaerako ondasun higiezinaren gaineko zerga kontzeptuko eskubide aitortuak %2,13 igo dira. Arestian aipatutako katastroaren eguneratzearen ondorioz, katastro baloreek izugarrizko igoaldia izan dute. Oinarri zergagarrien igoaldi hau arintzeko, udalak jaitsi egin ditu 2002an aplikatu beharreko tipo zergagarriak.
- Eraikuntza, instalakuntza eta obra zergaren kontzeptuan (EIOZ) aitortutako eskubideen %14,90eko beheraldia, 2002ko urtealdian obren exekuzioa txikiagoa izateagatik.
- Tasak eta bestelako sarrerak kapituluaren aitortutako eskubideak %3,08 murriztu dira. Nahiz eta tarifek %4ko igoera orokorra izan duten, ura hornitzeko tasa salbu, %8ko igoera izan baitu, hirigintza aprobetxamenduen kontzeptuko sarrerek %97,48ko beheraldia izateak, 2001ean 369 mila euro egitetik, 2002an 9 mila euro egitera aldatu denak, kapituluak osorik aurrez adierazitako portzentaian behera gitea ekarri du.
- Udal Finantzaketarako Foru Fondotik eratorritako sarrerek %5,08 gora egin izanaren ondorioz, transferentzia eta dirulaguntza arrunten kontzeptuan aitortutako eskubideek %4,27 egin dute gora, kapituluaren guztizko sarreren %90,28 egiten dutenak.
- Ondare sarrera kontzeptuan aitortutako sarrerek %16,11 egin dute behera, eta horretan eragina izan dute, batik bat, kontrako zeinua duten bi aldaerek. Batetik, kontu korrante eta gordailuetako interesek %51,82ko beheraldia izan dute interes tipoek behera egin izanaren ondorioz eta urtealdi honetan aurrekoarekiko diruzaintza gaindikinen zenbatekoa txikiagoa izan delako. Bestetik, errenta kontzeptuan aitortutako eskubideek %38,59ko igoaldia izan dute Euskaltel eta Telefonikari alokairuan udal jabetzako telekomunikazioen azpiegitura laga izanaren ondorioz.

Funtzionamendu gastuak: Aztertu dugun aldian goranzko joera erakutsi dute, 2002ko urtealdian 2001ekoarekiko izan duten igoaldia %7,91koa delarik, batez ere, arrazoi hauek tarte:



- Langile gastuek %10,58 egin dute gora, ordainsariek gora egin dutelako (%3) eta udal plantilla handitu delako (karrerako 8 funtzionario berri eta bitarteko 10 funtzionario lanpostu hutsetan).
- Erosketa eta zerbitzu gastuek %11,19 egin dute gora. Kapitulu honetako gastu kontzeptu guztietan igoaldi orokorra izan da; bereziki azpimarratzekoa da kanpoko enpresek egindako lanek izan duten igoaldia (%11,73), askotariko gastuek (%10,96) eta hornigaiak (%13,70).

Aurrezki gordina: Sarrera arrunten eta funtzionamendu gastuen arteko aldeak %11,08ko beheraldia izan du 2002ko urtealdian aurreko urtearekiko, izan ere, sarrera arruntena baino handiagoa izan baita funtzionamendu gastuen igoera.

Aurrezki garbia: Finantza zamei aurre egin ondoren eskuragarri geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du eta Udalak baliabide arruntekin inbertsioak finantzatzeko duen gaitasuna erakusten du. Nahiz finantza zama (gastuen 3. kapituluaren kontuetaratutako interesak eta gastuen 9. kapituluaren erregistratutako zorraren amortizazioa) %2,93 murriztu den 2002ko urtealdian, 2001ekoaren aldean, interes tipoek behera egin dutelako eta zor biziaren zenbatekoak ere behera egin duelako, aurrezki garbia %13,94 jaitsi da 2002ko urtealdian aurrekoarekiko, aurrezki gordina txikiagoa izan delako.

Inbertsio garbia: Magnitude hau 2002an aurreko urtealdiarekiko %19,74 jaitsi da, “Azpiegitura eta Hirigintza” eta “Eraikin eta bestelako eraikuntzetan inbertsioak” kontzeptuetan exekuzio txikiagoa izan duelako.

Zorpidetza: Erabilitako zorpidetza 2002an aurreko urtealdiarekiko, urtealdian egindako amortizazioen zenbatekoan jaitsi da.

Biztanleko ratioak: Gipuzkoako eta EAeko udalekin alderaketak egiteko, gogoan izan behar da Administrazio bakoitzaren arabera, zerbitzuak emateko dauden aldeak. Zenbaitetan zuzenean ematen dira udal administrazioetik bertatik eta beste batzuetan, berriz, erakunde autonomo, merkataritzako sozietate publiko edo zeharka, mankomunitate, partzuergo edo bestelako merkataritzako sozietateen bitartez ematen dira. Gipuzkoako eta EAeko udalekiko alderaketa 2001eko urtealdiari buruzkoa da, ez baitauekudu udal horien 2002ko informaziorik eskura.

- Arrasateko Udalak egoera osasuntsua du, bai erakusten dituen zifrengatik, bai bere mailako gainerako udalekiko alderaketagatik ere.
- Emaizta arruntaren eta aurrezkiaren –gordin zein garbiaren- ratioak, biztanleria maila bereko udalenak baino altuagoak dira.



- Arrasateko inbertsio garbiaren ratioa, bere mailako udalena baino askoz handiagoa da. Berebat, gainerako udalen batez bestekoarekin alderatuta, kapital dirulaguntzen ratioa handiagoa da.
- Arrasateko udalak erabilitako zorpidetza Gipuzkoako bere mailako udalen batez bestekoa baino txikiagoa da, baina EAeko udalena baino altuagoa.

Ondorioa: Datozen urtealdietan azken urteetako inbertsio zifrei eutsiko zaiela suposatuz gero, edota, 2004ko urtealdiaren Aurrekontuan aurreikusi den moduan, handiagoak balira eta suposatuz aurrezki garbiaren eta gaindikinaren joerak beheranzkoa izaten jarraituko lukeela (2003ko aurrekontuaren likidazioan magnitude hauek 3.909 eta 2.032 mila eurokoak dira), analisi honen hasierako taulan ikus daitekeen legez, eta baita, Epaitegi honek proposatutako zuzenketak gogoan hartuko balira ere, Arrasateko Udalak, inbertsio zifra hauei aurre egiteko, kanpoko finantzaketaren bidea erabili beharko du, bai dirulaguntza berriak erakarrita edota berriz zorpidetzara joaz (2003ko urtealdian udalak 3.603 mila euroko mailegu berriak erabili ditu eta 2004an maileguen kontzeptuan 1.623 mila euro sartzea aurreikusi du.

**IV. URTEKO KONTUAK****UDALA**

2002-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Mila euro

SARRERAK	ERANSKINA	AURREKONTUA			ESKUB. KITAP.	KOB. KOBRAZ.	EGITEKE KOBRAZ.	%
		HASIER.	ALDAT.BEHIN-BET.					
1.- Zerga zuzenak	A.3	4.468	-	4.468	4.438	4.058	380	99
2.- Zeharkako zergak	A.3	1.202	-	1.202	807	776	31	67
3.- Tasak eta prezio publikoak.....	A.3	3.398	21	3.419	3.395	3.136	259	99
4.- Transf. eta dirul. arruntak.....	A.4	10.405	-	10.405	10.206	9.860	346	98
5.- Ondare sarrerak.....	A.17	330	-	330	322	296	26	98
6.- Inbertsioen besterentzea.....	A.5	1.322	-	1.322	601	601	-	45
7.- Kapital dirulag. eta transf.....	A.4	942	42	984	982	42	940	100
8.- Finantza aktiboen aldak.....	A.13	60	2.629	2.689	56	19	37	(*93)
9.- Finantza pasiboen aldak.....	A.14	3.074	1.803	4.877	1.803	-	1.803	37
GUZTIRA		25.201	4.495	29.696	22.610	18.788	3.822	(*84)

(*) Exekuzioaren % kalkulaterakoan Diruzaintza Gerakina txertatzearen eragina zuzendu da.

Mila euro

GASTUAK	ERANSKINA	AURREKONTUA			OBLIG.ORDAINK. AITORT.	EGITEKE ORDAINK.	%	
		HASIER.	ALDAT.BEHIN-BET.					
1.- Langileria gastuak.....	A.6	5.314	-	5.314	5.203	5.202	1	98
2.- Ondasun erosk. eta zerb.	A.7	4.862	373	5.235	4.629	4.062	567	88
3.- Finantza gastuak.....	A.14	262	(20)	242	223	223	-	92
4.- Transf. eta dirul. arruntak.....	A.8	4.432	275	4.707	4.174	3.815	359	89
6.- Inbertsio errealak	A.9	8.106	3.283	11.389	6.623	5.391	1.232	58
7.- Kapital dirulag. eta transf.....	A.8	920	583	1.503	1.426	524	902	95
8.- Finantza aktiboen aldak.....	A.13	60	1	61	56	53	3	92
9.- Finantza pasiboen aldak.....	A.14	1.245	-	1.245	1.240	1.240	-	99
GUZTIRA		25.201	4.495	29.696	23.574	20.510	3.064	79

AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA

Mila euro

	EGITEKE HASIER.	BALIOG.	KOBR./ ORDAINK.	EGITEKE AZKENA
Zordunak	4.320	135	2.422	1.763
Hartzekodunak	2.271	10	2.029	232
AURREKONTU ITXIAK	2.049	125	393	1.531



AURREKONTUAREN EMAITZA	Mila euro
Eskubide kitatuak.....	22.610
Obligazio aitortuak	(23.574)
Eskubideen balio gabetzea aurrekontu itxietan.....	(135)
Eskubideen balio gabetzea aurrekontu itxietan.....	10
AURREKONTUAREN EMAITZA	(1.089)
EMAITZARI DOIKETAK	
Diruzaintza gerakinarekin finantzatutako obligazioak	1.811
Finantzaketaren desbideraketak	(636)
DOITUTAKO AURREKONTU EMAITZA	86

DIRUZAINZA GAINDIKINA	Mila euro
KOBRAITZAKO DAUDEN ZORDUNAK:	
Sarrera arrunten aurrekontukoak	3.822
Sarreraren aurrekontukoak, itxiak	1.763
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak	384
(Zalantza kobragarritasuneko saldoak).....	(830)
GUZTIRA (A)	5.139
ORDAINTZAKO DAUDEN HARTZEKODUNAK:	
Gastuen aurrekontukoak, arruntak.....	3.064
Gastuen aurrekontukoak, itxiak	232
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak	733
Sarreraren itzulerakoak	286
GUZTIRA (B)	4.315
DIRUZAINZAKO FONDO LIKIDOAK (C)	2.022
DIRUZAINZA GERAKINA (D=A-B+C)	2.846
FINANTZAKETA ATXIKIA DUTEN GASTUETARAKO GAINDIKINA (E)	636
GASTU OROKORRETARAKO GERAKINA (D-E)	2.210

	Mila euro
02.12.31-N ZORPIDETZA	7.135



EGOERAREN BALANTZEA 2002ko abenduaren 31n

Mila euro

AKTIBOA	Eransk.	02 aben.	01 aben.	PASIBOA	Eranskina	02 aben.	01 aben.
Ibilgetua		35.878	32.884	Fondo propioak		31.264	28.307
Ibilgetu ezmateriala.....	A.11	129	94	Ondarea		30.123	30.123
- Pilatutako amortizazioa.....	A.11	(67)	(54)	Atxiki edo lagatako ondarea.....	A.11	(20.003)	(19.708)
Ibilgetu materiala	A.11	39.403	35.544	Erabilera orokorrerako ondarea	A.11	(19.672)	(17.430)
- Pilatutako amortizazioa.....	A.11	(4.431)	(3.547)	Urtealdi itxien emaitza		35.322	29.308
Ibilgetu finantzarioa	A.12	844	847	Galdu-irabaziak.....		5.494	6.014
Hainbat urtealditan banatzeko gastuak		70	75	Hainbat urt. banatzeko sarr.	A.4	216	999
				Epe luzeko zorrak		5.860	5.634
				Erakunde publikoekiko zorrak		-	307
				Epe luzeko bestel. zorrak.....	A.14	5.860	5.327
Zordunak		5.139	2.887	Epe laburreko zorrak		5.769	4.217
Aurrekontuzkoak	A.15	5.585	4.320	Aurrekontuko hartzekodunak		3.296	2.271
Aurrekontuz kanpokoak.....	A.16	384	283	Sarrerren itzulketeng. hartzekod.....		286	2
- Hornidurak	A.15	(830)	(1.716)	Bestelako hartzek.....	A.16	171	43
				Entitate publiko hartzekodunak.....	A.16	456	414
				Erakunde publikoekiko zorrak kred.erag.	A.14	1.435	1.245
Finantza kontuak		2.022	3.311	Fidantza eta gordailuak epe laburreraA.16106		136	
Diruzaintza	A.17	2.022	3.311	Aldizkakotzeagatiko doiketak.....		19	106
AKTIBOA		43.109	39.157	PASIBOA		43.109	39.157

2002ko urtealdiaren GALDU-IRABAZIEN KONTUA

Mila euro

GASTUAK	Eranskina	02 urtea	01 urtea	SARRERAK	Eranskina	02 urtea	01 urtea
Langile gastuak.....	A.6	5.237	4.739	Negozio zifratik zenbateko garbia ..	A.3	2.706	2.543
Ibilgetua amortiz. zuzkidura	A.11	899	743	Zerga zuzenak	A.3	4.438	4.163
Trafiko horniduragatiko aldak.		(886)	(439)	Zeharkako zergak.....	A.3	807	948
Kanpoko zerbitzuak	A.7	4.873	4.284	Jasotako transf. eta dirul. arruntak .	A.4	10.292	9.681
Transf. eta hitzart. dirulag.....	A.8	5.594	5.258	Bestel. kudeaketa sarrerak.....	A.3	926	1.167
Finantza gastuak	A.14	223	350	Finantza sarrerak	A.17	85	177
				Emaitzetara aldat. kap. dirulag.....	A.4	1.479	2.234
Aurreko urteald. galerak		131	14				
Aparteko gastuak		4	2	Aparteko sarrerak	A.11	836	52
Gastuak		16.075	14.951	Sarrerak		21.569	20.965
Ondare emaitza (Mozkina)		5.494	6.014				



ITURBIDE EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA

2002-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Mila euro

SARRERAK	ERANSKINA	AURREKONTUA			ESKUB. KITAP.	KOB.R. GABE	KOB.R.	% EXEK.
		HASIER.	ALDAT.BEHIN-BET.					
3.- Tasak eta prezio publikoak.....	A.19	753	-	753	781	781	-	104
4.- Transf. eta dirul. arruntak.....	A.19	873	61	934	883	571	312	95
5.- Ondare sarrerak.....		-	-	-	1	1	-	-
7.- Kapital dirulag. eta transf.....		-	-	-	1	1	-	-
8.- Finantza aktiboen aldak.....		8	9	17	-	-	-	-
GUZTIRA		1.634	70	1.704	1.666	1.354	312	98

Mila euro

GASTUAK	ERANSKINA	AURREKONTUA			OBLIG.ORDAINK. AITORT.	ORDAIN. GABE	% EXEK.	
		HASIER.	ALDAT.BEHIN-BET.					
1.- Langileria gastuak.....	A.19	380	17	397	396	396	-	100
2.- Ondasun erosk. eta zerb.....		1.246	20	1.266	1.241	1.025	216	98
4.- Transf. eta dirul. arruntak.....	A.19	-	33	33	33	-	33	100
8.- Finantza aktiboen aldak.....		8	-	8	-	-	-	-
GUZTIRA		1.634	70	1.704	1.670	1.421	249	98

AURREKONTU ITXIEN ALDAKETA

Mila euro

	EGITEKE HASIER.	BALIOG.	KOB.R./ ORDAINK.	EGITEKE AZKENA
Hartzekodunak.....	196	-	196	-
AURREKONTU ITXIAK	(51)	-	(56)	5



AURREKONTUAREN EMAITZA	Mila euro
Eskubide kitatuak.....	1.666
Obligazio aitortuak	(1.670)
Eskubideen balio gabetzea aurrekontu itxietan.....	-
Eskubideen balio gabetzea aurrekontu itxietan.....	-
AURREKONTUAREN EMAITZA	(4)
EMAITZARI DOIKETAK	
Diruzaintza gerakinarekin finantzatutako obligazioak	4
Finantza ketaren desbideraketak	-
DOITUTAKO AURREKONTU EMAITZA	-

DIRUZAINZA GAINDIKINA	Mila euro
KOBRAITZAKO DAUDEN ZORDUNAK:	
Sarrera arrunten aurrekontukoak	312
Sarreraren aurrekontukoak, itxiak	5
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak	-
(Zalantza zko kobragarritasuneko saldoak)	-
GUZTIRA (A)	317
ORDAINTZAKO DAUDEN HARTZEKODUNAK:	
Gastuen aurrekontukoak, arruntak.....	249
Gastuen aurrekontukoak, itxiak	-
Bestelako eragiketa ez aurrekontukoak	160
Sarreraren itzulerakoak	-
GUZTIRA (B)	409
DIRUZAINZAKO FONDO LIKIDOAK (C)	98
DIRUZAINZA GERAKINA(D=A-B+C)	6
FINANTZAKETA ATXIKIA DUTEN GASTUETARAKO GAINDIKINA (E)	-
GASTU OROKORRETARAKO GERAKINA (D-E)	6

	Mila euro
02.12.31-N ZORPIDETZA	-



EGOERAREN BALANTZEA 2002-ko abenduaren 31n				Mila euro		
AKTIBOA	aben.02	aben.01	PASIBOA	ERANS.	aben.02	aben.01
Ibilgetua.....	1.746	1.781	FONDO PROPIOAK		1.752	1.790
Ibilgetu materiala	2.116	2.081	Atxiki edo lagata dagoen ondar.	A.11	2.106	2.070
- Pilatutako amortizazioa.....	(370)	(300)	Urtealdi itxien emaitza		(280)	(225)
			Galdu-Irabaziak.....		(74)	(55)
Zordunak	317	145	Epe laburreko zorrak		409	209
Aurrekontuzkoak	317	145	Aurrekontuko hartzekodunak		249	196
			Bestel. hartzekodun ez aurrekontuzkoak		141	-
			Entitate publiko hartzekodunak.....		19	13
Finantza kontuak	98	73				
Diruzaintza	98	73				
AKTIBOA	2.161	1.999	PASIBOA		2.161	1.999

2002-KO URTEALDIAREN GALDU-IRABAZIEN KONTUA				Mila euro	
GASTUAK	02 urtea	01 urtea	SARRERAK	02 urtea	01 urtea
Langile gastuak.....	397	336	Negozio zifratik zenbat. garbia.....	763	723
Ibilgetua amortiz. zuzkidura.....	70	64	Jasotako transf. eta dirul. arrunt.....	883	675
Kanpoko zerbitzuak	1.240	1.141	Bestel. kudeaketa sarrerak.....	18	86
Transf. eta hitzart. dirulag.	33	-	Finantza sarrerak.....	1	2
			Emaitzetara aldat. kap. dirulag.	1	-
GASTUAK	1.740	1.541	SARRERAK	1.666	1.486
Ondare emaitza (Mozkina)	-	-	Ondare emaitza (galera)	74	55



AUKEA KIROLAREN ERAKUNDE AUTONOMOA

Kasu guztietan, hasierako kontratutik bereizi ezin zirenez obrak, bai teknika eta ekonomia zioengatik, Administrazioari arazo handirik sortu barik, obren adjudikazioduna “Construcciones Mariezcurrena SL” enpresa izan zen, hau da, Eusko Jaurlaritzaren obren adjudikazioduna.

Bestalde, erabili den adjudikazio sistema justifikatzeko baliatu den arrazoiaz gain, emaitza berbera aterako lukeena nahiz eta HKEEk salatutako kontratua ez zatikatu, Udalaren iritziz, ez da egokia berba egitea kontratuak zatikatzeari buruz, udalerriko geografia eremu ezberdinetan (San Andres auzoa, Musakola auzoa, Santa Marina auzoa) eta, denboraz, data ezberdinetan (2001eko uztaila, 2001eko abendua, 2002ko maiatza, 2002ko uztaila) adjudikatu eta egindako obra batzuetan, eta hori, HKEEren iritziz, obrek izendatzaile komun moduan dutelako “Telematika Sarea”, “Euri-uren Sareak” edo “Uren Sarea” denifizioa, hain zuzen.

Laburbilduz, uste dugu ez dagoela kontratuaren xedearen zatikatze desegokirik eta zuzena dela adjudikatzeko jarraitu den prozedura, kasu bietan.

San Frantzisko komentua zahar-berritzeko obrak zuzentzea eta San Teresa ikastolako urbanizazio obrak zuzentzea – *zuzeneko kontratazioa, alboratu izan eta APKLTBan aurreikusitako moduak eta prozedurak.*

Adierazi behar dugu bi espediente ezberdin direla, eta horietan gorabehera bereziak biltzen dira. Udalaren iritziz, erabili den prozedura justifikatzen du horrek.

Espedienteetako lehenengoan, obra zuzentzearen adjudikazioak jatorria du aurreko akordio batean, 1990eko urtekoan; akordio horren arabera, arkitekto bati adjudikatu zitzaion zahar-berritzeko obren proiektu teknikoa idaztea, baina orduan ez zen adjudikatu obrak zuzentzea, proiektua finantzatzeari buruz zeuden zalantzak ikusirik.

Zalantzak argitu ondoren eta obraren bideragarritasun teknikoa eta finantzieroa egiaztatu ondoren, proiektuaren aldaketa (eguneratzea) eta obra zuzentzea adjudikatu zitzaion 1998an hasierako proiektua idatzi zuen arkitekto berberari, uste zuelako Udalak aukera



merkeena zela eta arrazoizkoena, kontuan izanik obraren ezaugarriak eta orduan egunean 1990ean egindako lehiaketaren lizitatzailerei eskatu zitzaizkien baldintzak.

Espedienteetako bigarrenak helburu hauxe zuen, Santa Teresan eskola eraikin berri bat eraikitzeko obren osagarri gisa egin behar zen urbanizazio publikoaren zatia adjudikatzea, eta APKLTBren 141. artikuluan aurreikusitako publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabili zenez, obra nagusia egiteko ardura zuen enpresa eraikitzaileari adjudikatu zitzaizkion obrak, uste genuelako prozedura hori egiteko gorabeherak biltzen zirela, hasierako kontratutik obra horiek bereizterik ez zegoelako, teknika eta ekonomia arrazoiez, Udalari kalte handiagoa sortu barik.

Oinezkoen zumardiaren obrak – Monterron-Erquin bidezatia – Behar ez bezala adjudikatu izana, lizitazioaren aurrekontutik gorako zenbatekoan.

Obra horren lizitazio oinarria zen 171.898.778 pezeta, eta oinarri horrekin aurkeztu zen Construcciones Galdiano SA enpresaren oinarritzko eskaintza.

Hala ere, obrak adjudikatu ziren 185.875.328 pezetan, Udalak onartu zuelako 1 zk.ko aldagaia edo alternatiba; bide zati horretako 0 + 025 y 0 + 0151 kilometro puntuen artean 2 metroko alturako barrera dinamiko bat egitea zen hura.

Aldagaiak edo alternatibak onartzeko aukera hori bazegoen obra horiek adjudikatzeko klausula administratibo partikularren agiriaren 5. klausulan, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2001eko martxoaren 7an, lizitazio iragarkian. Hortaz, uste dugu betetzen direla APKLTBren 87. artikulua eskatzen dituen baldintzak, aldagaiak onartzeari buruz.

Etxeko laguntza zerbitzuaren, garbiketa eta sukalde eta garbitokiaren zerbitzuaren espedienteak, hori ematen eta egiten jarraitu dugu, nahiz eta amaituta egon kontratua.

Beste era batez ezin denez, geureganatu egiten dugu egindako akatsa.

Edozelan ere, komeni da adieraztea hiru zerbitzu horien egoera 2003ko urtean erregularizatu zela, eta zerbitzu bitan, hain zuzen ere etxeko laguntzarena eta Iturbideko sukaldea eta garbiketarena, hil gutxi batzuetan egon zirela legez kanpoko egoera horretan, barne eztabaida politiko batengatik (dagozkion ohartarazpen teknikoak jaso ziren), birkontratazio horri aplikatu dakizkiokeen ordainketa irizpideei buruz (aplikazioko lan hitzarmena eta abar).

I.1.D - DIRULAGUNTZAK

Zuzeneko dirulaguntzak edo hitzarmen bidezko dirulaguntzak ematea, 516 mila euroan, APKLTBan erregularitutako kontraturen batekin bat datorrena izanik helburua (8. eranskinean ere aipatu dira).



Atal horretan sartutako dirulaguntza guztietatik, onartzen dugu eta, gainera, hasita daude tramiteak, Ludoteka eta Gazte txokoen zerbitzua kudeatzea erregularizatzeko, 2005eko urtean birkontratazio erregimenean emateko zerbitzu hori.

Hala ere, akats moduan aurkeztu diren gainerako kasuetan, ez gara HKEEren iritzi berekoa, arrazoi hauengatik:

Goiena – Udal irrtiaren kudeaketa, bere garaian Eusko Jaurlaritzarekin adostu zen formula delako; hortaz, APKLTBren aplikagarritasuna ez da onargarria, udalaren instalazio tresneriak antolatu eta kontrolatzeko apirilaren 8ko 11/1991 Legearen 3. artikuluan xedatutakoaren ondorioz; ezartzen du hauxe *“el servicio público de radiodifusión sonora cuya concesión se otorgue a los Ayuntamientos será gestionado directamente por medio de alguna de las formas previstas en el artículo 85.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local”*, hau da, ez dago zeharkako kudeaketarik ezartzea,⁴ ez eta, hortaz, APKLTBren aplikazioa ere.

Arrasate Euskaldun Dezagun, kultura ekintzak eta euskara sustatzeko ekintzak, “Zaharberri” proiektua eta Eskola eta Aisia proiektua, noizean behingo ekintzak direlako, (euskarazko literatura lehiaketa, Bertso Eskolak eta abar), errepikatzen ez direnak, Administrazioen dirulaguntzen jardueraren eremuan bete-betean sartzen direnak eta beste entitate eta partikular batzuekin elkarlanean eta haiekin finantzaturik garatzen direnak, (ikastetxeak, euskaldun zaharrak eta abar), Udala bera ere bai, programa horietan parte hartzen dutenek borondatez egiten dutelarik hori. Bestalde, zalantza dago, ekintza horien ezaugarriak ikusirik⁵, eskaintza bat egoteari buruz eta benetan norgehiagoka egoteari buruz, Kontratuen Legearen bidez izapidatuz gero.

Azken batean, egokiagozat jotzen dugu ekintza horiek finantzatzea dirulaguntzen kapituluaren bidez birkontratazio bidez baino; baina, bestalde, diruz laguntzen diren jardueren izaera kontuan izanik, ez dago legezko debekurik dirulaguntza bidez finantzatzeko.

San Frantzisko Xabier ikastola, Udalaren jabetzako eraikin bat berritu eta handitzeko obrak. Udalbatzarrak 2000/09/28an onartutako hitzarmenaren arabera, jasotzen da urte askotako kredituen bidez ikastetxe batean egin beharreko obren elkarfinantziazioa; formaz Udalaren jabetza bada ere, erabiltzeko lagapena dago Ikastolaren alde, aurreko hitzarmen baten ondorioz, Udalbatzarrak 1993ko urtarrilaren 29an onartua. Haren bidez, San Frantzisko Xabier ikastolak (eraikinaren hasierako jabea) horren jabetza eskualdatzen zuen, erabiltzeko lagapen horren baldintzarekin, betiere irakasteko jardueretarako izanez gero.

⁴ Halaxe da, egiaz, ezinezkoa da udal irrtiaren zeharkako kudeaketa, bai ordea, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeari meneratuak dauden hainbat zerbitzuren kontratazioa.

⁵ Pertsona fisiko edo juridikoekin lankidetzat hitzarmenak, beti ere helburua APKLTBn araututako kontratuetan baldin badago, bere ezarpen esparruaren eraginpean daude. Esku artean ditugun kasuetan, APKLTBn barne hartuak dauden aholkularitza, laguntza eta/edo zerbitzu kontratuak dira guztiak.



Aukera biak defenditzeko modukoak badira ere, zuzenean egitea Udalak eta Ikastolarekin batera finantzatzea (HKEEren iritzia), edo Ikastolak egitea eta Udalak laguntzea finantzatzen (Udalak aukeratu duen aukera), orduan garaian egindako balorazioa zen, izaera bereziko inbertsio bat izanik (ikastetxerako baino ez dena), non-eta aurreuposatzen zen proiektua aldatu eta egokituko zela, egokiagoa eta azkarragoa zen Ikastolak berak egitea proiektua, gozamenaren beharrei hobeto erantzuteko, Udalak gainbegiraturik obra zuzendari batez. Halaber, zehaztuta daude, sinatutako lankidetzaren hitzarmenean, eman beharreko dirulaguntzen gehieneko mugak eta denboraren aldizkotasuna (4 urteko kuota), eta azkenean obraren kostu osoaren %60 ingurura iritsi da finantzaketa maila.

I.2 – URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

I.2.1. – Kapital gehiegi pasatzea Dirulaguntzetara, San Frantzisko komentuko Erakusketa Aretorako Foru Aldundiak emandako dirulaguntzagatik (A.4 eranskinean ere aipatua).

Emaitzari larregi aplikatzeari buruz HKEEren kalkulua egin da Foru Aldundiaren dirulaguntzaren portzentajea ateratzea proiektuaren kostu osoari buruz, eta portzentaje hori, gero, aplikatu 2002ko urtean proiektu horri dagokionez Arrasateko Udalak ziurtatutako obra zenbatekoari.

Udal kontabilitatera trasladatutasko erabakia zen, itxiera prozedura samurtze alde, 2002ko urteko inbertsioaren exekuzioa gehiturik aurreko urteetan ordaindutako ordainsarien kostuak foru dirulaguntzaren zenbatekoa baino handiagoak zirenez, dirulaguntza hori guztia aplikatzea 2002ko urtealdiko emaitzari, uste genuelako defendagarria zela interpretazio hori, izan ere, dirulaguntza emateko Diputazioaren erabakitik ez genuen atera garbi hura ordaintzeko irizpidea eta mekanismoa. Bestalde, gai hori ia ondoriorik gabekoa zen, Ondare Emaitzari eragiten baitio bakarrik eta ez dio eragiten Aurrekontu Emaitzari, Diruzaintzako soberakinari, ez eta Egoera Balantzeari ere.

Bestetik, Estatuko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokor berriak, 1994ko maiatzaren 6ko Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Aginduz onartu dena, ez ditu jasotzen Kontabilitateko 1. Taldean-kapital transferentziagatik diru sarrerak, baizik zuzenean jasotzen ditu 7. taldean, hau da, zuzenean egozten zaie urtealdiko emaitzei, eta ziur aski jasoko dute antzeko zentzuan foru erregimeneko lurraldeetan onartu behar diren plan berriek nahiz Toki Korporazioentzat Estatuak onartu behar duen plan berriak (zirriborroak halaxe jasotzen du).

Azkenik, adierazi behar dugu, Udalak 1,4 miloi eurotik gora exekutatu baitzuen obretan, foru dirulaguntza osoa ordaindu zela 2003ko urtean, 450.000 euro inguruko zenbatekoaren obra ziurtagiriak justifikaturik; hortaz, begi bistakoa da Foru Aldundiak ez duela erabili HKEEek zenbatu edo planteatu duen %10,4ren doitze irizpidea.

I.2.2. – 2002ko urtealdian sinatutako eta erabili ez zen mailegua 1.803 mila eurokoa. HKEEren iritziz, atera behar da Aurrekontu Emaitzatik, Diruzaintzako Soberakinetik eta Balantzetik (14. eranskinean ere aipatua).



Sinatutako eta erabili gabeko mailegua kobratzeko moduan Udalak zergatik hartu duen aintzat hobeto ulertzeko, hona hemen deskribaturik eragiketaren ezaugarriak:

Kutxa-rekin sinatutako maileguak 2002ko otsailaren 26an, 1.803 mila eurokoa, urte bateko epea zeukan hura erabiltzeko, hau da, epe hori 2003ko otsailaren 26an bukatu zen.

Mailegu horrekin finantzatutako inbertsio guztiak “Agindua” edo “A” fasera iritsi ziren, hau da, eragina zeukaten Aurreko Emaitzan nahiz 2002ko aurrekontuaren Likidazioaren Diruzaintza Soberakinean.

Finantzaketari dagokionez ez zen beharrekoa erabiltzea fondo horiek 2002ko urtean, udal diruzaintzaren egoera dela eta, mailegua erabili barik orduko egunean eskatu zitezkeen ordainketa konpromisoak finantzatu zitezkeelako.

Egoera hori dela eta, mailegu hori 2002/12/31n “R” fasean uztea erabaki zen, iritzi hauetan oinarriturik:

Ordena logikokoa.

Albora utzita, zentzugabea zelako, 2002/12/31a baino lehen erabiltzea mailegua, behar ez ziren finantza gastu batzuk sortuko zituelako, ez du ematen oso normala eskatu behar diren tramite guztiak bete dituen mailegu batean (Kutxa-ren baimena, udalbatzarrak onartu izana, jende aurrean erakutsi izana, Foru Aldundiaren baimena, kontratu sinatua), ziur egonik oso-osoan erabili behar zela, eta hura erabiltzeko edo edukitzeko falta zen tramite bakarra izan daitekeenean Udalaren idatzi bat edo besterik gabe telefono dei bat, ezin jo izatea kobratzeke dagoen diru sarrera moduan, are eta gehiago hortik atera badaiteke Diruzaintzaren soberakina gutxitzea “modu artifizialean”, eta gainera negatiboa izan zitekeenean (LRHLren 174. artikuluan aurreikusitako neurriak hartu beharko lirateke). Aldi berean, legezko beste formula batzuek ere (mailegua erabiltzea errekurtsio moduan, gastu kredituen inkorporazio berriak finantzatzeko) egoera edo emaitza atipikoak eman litzakete. Azken batean, ulertzen dugu 2002ko urtealdiko gastuen zati baten finantzaketa “naturala” dela Kutxa-ren mailegua.

Arau eta doktrina ordenakoa.

Oraingo 47/2003 Legea Orokorrak, Aurrekontuarena, nahiz Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Estatuaren Kontuhartzailera Orokorrak egindako “Kontabilitate Printzipio Publikoak” agiriak, ezartzen du kontuan hartu beharreko printzipioetako bat moduan *gastu eta diru sarreraren korrelazio printzipioa*, zentzu honetan “*kontabilitate sistemak adierazi behar du entitate batek egindako gastuen eta hura finantzatzeko beharrezko diren diru sarreraren arteko lotura*”.

Bestetik, eta maileguaren figura klasikoari buruz, kontratua sinatzeak dirua entregatzea zekarrelarik, ari dela ematen duela kontuan hartu gabe, , eta ez oraingo maileguei buruz, fondoak erabiltzeko epea dutenak, IGAEn publikazio horretan, zorpetze publikoari buruz aipatzen duen 5. agirian, ezartzen du pasiboa errekonozitzeko printzipio orokorra, mailegu emaileak kapitala ematearekin batera, *baina era berean onartzen du salbuespen moduan*



aldez aurretik errekonozitzeko aukera, kontratuaren baldintzetatik ateratzen bada hura irmoa dela eta eskatzeko modukoa alde bien aldetik.

Udalaren iritzia da kasu honetan ezaugarri guztiak ematen direla, mailegua kobratzeke moduan jotzeko, 2002/12/31n kontabilizatzea.

1.2.3. – Diruzaintzako gerakina eta Ondare Emaiza igotzea, Uraren eta Zabor Bilketaren 2002ko 4. hiruhilekoaren diru sarrerengatik.

Alegazioaren zergatia da, doitze hori egin behar dela onartzen bada, ematen du hurrengo urtealdietan Udalak neurriak hartu beharko lituzkeela, HKEEk ikusitako akatsa berriro ez agertzeko.

Horri buruz, ia ezinezkoa da, likidazioaren Diruzaintza Soberakina kalkulatzeko, eginda egotea epean 4. hiruhilekoaren ur kontsumoei dagokien errolda, izan ere, kontagailuak irakurtzeko aldia (egiaztatu, akatsak ikusi eta gero, intzidentziak jaso eta gero) urtarrilean amaitzen da eta erroldak eta ordainagiriak geroago prozesatu eta emititzen dira, likidazioa onartzeko mugaeginaren ostean. Gainera, gehitu genezake, Gipuzkoako udalentsat IZFEk diseinatutako aplikazio informatikoaren ondorioz, aurrekontuan kontabilizatu beharra dagoela eragiketa bat, BEZ deklarazioan intzidentzia izan dezan; hortaz, 4. hiruhilekoaren diru sarrerak zenbatzeko epe muga are eta zorrotzagoa izango litzateke, hau da, urte bakoitzeko urtarrilaren 31n.

Udalaren iritziz, orokortasunez, sortzapean irizpidea aplikatu behar da, baina, edozelan ere, irizpide hori dela-eta salbuespen batzuk daude, besteak beste, kasu hauxe egon daiteke, aldizkako diru sarrera bat delako, eta urtealdi bateko emaitza ekonomikoaren gaineko ondorioari ez dio larregi eragiten irizpide bata edo bestea aplikatzeak, izan ere, urteko laugarren hiruhilekoa kontabilizatzeari utziz gero, aurreko urteko 4. hiruhilekoa aplikatzearekin konpentsatzen da, kopuruetan, antzeko samarrak.

Bestalde, Udalaren interpretazioak ere “doktrina” euskarri bat izango luke, IGA Eren publikazio horren bidez; 2. agirian – Diru sarreretan kobratu behar diren eskubideak, kobratu behar diren eskubideak errekonozitzeko, irizpide orokor hau ezartzen du, zenbatzen dituzten likidazio egintzak ematen diren unean bertan kontabilizatzeke edo erregistratzeko irizpide orokorra.

Azken baten, aurrekontuaren likidazioa onartzeko orduan, Udalak ez du eman administrazio egintzarik erroldak onartzeko, eta ez dago kobratu beharreko kopuruen zenbatekoa zenbatzeko egoeran; hortaz, zaila egingo zaio ezer kontabilizatzea eta HKE Eren jarraibidea betetzea.

1.2.4. – Egoera Balantzearen ibilgetuaren kopuruak ez du agertzen 2000/12/31ko ondasun eta eskubideen benetako egoera. 1995az aurreko ibilgetua ez dago baloratuta erosketa kostuaren edo produkzio kostuaren irizpidearekin, eta halaber ez daude baloratuta erabilera orokorreko ondasun entregak, 1994az aurretik izandakoak, zero balioaz jasotzen direnak (A.11 eranskinean aipatzen da).



Aurrekoaren izpiritu beraz egin da alegazio hau, hau da, akats larritzat jotzen bada, auditoriaren txostenaren iritzien atalean agertzen delako, ematen du zuzendu egin beharko genukeela hurrengo urtealdietarako.

Horri dagokionez, Udalak uste du 1991ko maiatzaren 31ko Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren Aginduaren izpiritua errespetatu duela; agindu horren arabera, Toki Administrazioarentzako kontabilitate informazioko sistema berrian kontabilitatea irekitzeko jarraibideak onartzen dituen; bigarren zatian, 3.1. atalean, Egoera Balantzea egiteari buruzkoa eta ibilgetuari buruzko 4.1.f atalean, adierazten dute helburua dela “*ondare egoera bat ezarri ahal izatea, errealtatetik ahalik eta gertuena*”.

Horretarako, ibilgetua alta ematen denean, Egoera Balantzea egiteko, udaleko zerbitzu teknikoek egindako tasazioaren balioak erabiltzen dira; logikaz, duela gutxiko ibilgetuari dagokionez, oinarria du kostu historikoan, baina lehengo ibilgetuan balorazio tekniko batean bakarrik egon daiteke oinarriturik, eta ez da onartzen, bestalde, balio ekonomikoekin erabilera orokorrari 1994 ekitaldiaz aurretik entregatutako ondasunak sartzea, beharrezkoa ez zen konplikazioa suposatzen zuela kontsideratu zelako. Gainera, uste dugu horrek deformatu baino ez zituen egingo finantza egoeren informazioa (parkeen balorazioa, bide publikoetako obrak eta abar).

Erabilera orokorrari lagatutako ondasunen entregean Balantzean baloreekin ez sartzeari buruz, 1994ko urtea baino lehen entregaturik, lehen adierazi den Ministerio Aginduaren 4.1.B artikuluan izan lezake euskarria erabaki horrek, eta haxe adierazten du agindu horrek:

“ En el caso de infraestructuras y bienes destinados al uso general, sólo se recogerán a través de las rúbricas correspondientes al subgrupo 22 “Inversiones en Infraestructura y bienes destinados al uso general” aquellas inversiones que se encuentren en curso de ejecución, ya sea en bienes de uso público local, en los comunales o en los que conformen el patrimonio histórico de la entidad;.....

De forma excepcional, y de acuerdo con lo establecido en las Reglas 220 de la I.C.A.L. y 152 de la I.C.S., cuando la Entidad Local así lo estime conveniente, en estas cuentas se podrán incluir las inversiones que al comienzo del ejercicio 1992 ya hayan sido terminadas, siempre que dichas inversiones figuren recogidas en el correspondiente inventario.”

Udalak hartutako irizpidea zuzena ez dela iritziz gero, galdera hau datorkigu berehala, noiz arte egin beharko genuke atzera informazio bilketan?, zer balorazio iritzi hartu, erosketa prezioa edo produkzio kostua lortzerik ez badugu?

Gaur arte, Udalaren kontuei buruzko auditoriak egin dituzten enpresek nahikotzat jo dute urtealdi bakoitzeko finantza egoeren azalpen memorian sartzea ohar bat, erabilitako ezaugarriez eta erabilitako balorazio irizpideez informatzen duena.

Udalak egindakoaren kontrako interpretazioa eginez gero, ematen du talka egiten duela kontabilitate informazioak bete behar dituen *arrazoi eta ekonomia baldintzekin, egoera horiek jaso behar dituztenen aldetik erabakiak hartzeko prozesuan efikazia*



bermatzeko, 1. agirian ere aipatzen direnak – Ogasun Ministerioak egindako Kontabilitate Printzipio Publikoak-IGAE.

I.2.5. Arrasate Garatu SA-ren kontuak ematea falta da

Azaltzeko bada ere, kontu horiek ez dira eman, ez konplexutasun teknikoa dutelako, izan ere, diruzaintza eta Udalak ordaindutako Kapitala baino ez daude (%100ean jabea), 60 mila euroan, baizik eta sozietatearen etorkizunari buruz erabakiak hartzeko gehiengo politikorik ez egotearen egoera atipikoagatik. Horrek sortu du sozietate hori geldirik egotea hasiera-hasieratik eta ez dira berri – izendatu Zuzendaritzako Organoak (Administrazio Kontseilua, presidentea, gerentea edo arduradun teknikoak eta abar).

Egoera hori 2004an konponduko dugu, 2004ko aurrekontuak onartzean, aurreikusi delako sozietatea desegitea eta ordaindutako kapitala Udalari itzultzea.

II – KUDEAKETAKO ALDERDIAK ETA GOMENDIOAK

II. 1 – AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

II.1.2. Kontabilitate erregistroa. *Pertsonal gastuak ez du jasotzen bereizirik baimen eta erabiltze faseak, zuzenean kontabilizaturik ADOME-ren bidez nomina bakoitzaren hileko gastua, eta halaber baterako kontabilizazioa egiten da, bereizi barik eraikuntzen gaineko zerga eta hirigintzako lizentziak ematearen tasa.*

Adierazi behar dugu bakarrik arazo orokorra dela Gipuzkoa osoan, izan ere, IZFEk diseinatutako aplikazio informatikoak ez du uzten halaxe funtzionatzea (EIOZren autolikidazioen eta tasaren aldearen kasuan, 2004ko urteaz geroztik, konponduta dago arazo hori).

II.2 – BARNEKO KONTROLA

Kontuhartzaileak ez ditu egiten 39/88 Legearen 185.2 artikuluan eta 1174/1987 Errege Dekretuaren 4.1.1. artikuluan agertzen diren esku-hartze funtzio guztiak.

Artikulu horiek aipatzen dute, batetik, “Kontuhartzailetzaren eskumena, Toki Erakundearen mende dauden erakunde autonomoetako kontabilitatea ikuskatzeko, Udalbatzarrak ezartzen dituen prozeduren arabera”, eta bestetik, “barne auditoriak egiaztatzea eta horien prozedura egitea Erakundearen mende dauden erakunde autonomoetan, bai eta horien finantza izaerako kontrola egitea ere, horiek arautzeko dauden xedapenen eta jarraibideen arabera, eta horiei buruz Udalbatzak hartutako akordioen arabera”

Horri dagokionez, eta onartzen badugu ere formazko hainbat aspektu hobetu egin daitezkeela, kontuan izanik Udalak ezarritako irizpideak, Erakunde Autonomoetako estatutuen bidez, eta Aurrekontuak Betzeko Arauen bidez, eta gastu kudeaketaren eskumenak banatu eta auditoriak egiteari buruz hartu diren erabakiekin, eta, bestetik,



baloratzen dira dauden baliabide pertsonal eta materialen mugak, Udalaren iritziz erakunde autonomoen barne kontrola gogobetean egiten da.

Bakarrik aipatzeko, adierazi beharra dugu zeintzuk diren Udalbatzarrak ezarrita dituen kontrol bide nagusiak:

Erakunde autonomoen bilera deiak eta akordio proposamenak bidaltzea udal idazkariari nahiz kontuhartzaileari, jakin, fiskalizatu dezaten eta, hala badagokio (estatutuetan jaso), txostena egin dezaten.

Inbertsioak exekutatzea, udal aurrekontuaren bidez bakarrik, eta geroago atxikitzea, Udalaren formazko akordioaren bidez, erakunde autonomoaren ondareari, inbertsioa bukatutakoan (urtero finkatua aurrekontuak onartzen direnean).

Erakunde autonomoek debekaturik dute zorpetze bidea, haien aurrekontuak finantzatzeko formula moduan (urtero finkatua aurrekontuak onartzen direnean).

Zuzeneko kudeaketa Udaletik bertatik, nominena nahiz birkontratutako zerbitzu nagusiak kontratatuzko prozedurena.

Kreditu aldaketak onartzeko Udalaren eskumena, hasierako kredituari buruz gastuetan %25 eta %35eko desbideraketa portzentajeak gainditzen dituzten kreditu aldaketa guztietarako, edo, 300 euro edo 3.000 euro gainditzen duten aldaketetan, Aukea eta Iturbide Egoitza erakunde autonomoetarako, hurrenez hurren (aurrekontuak betetzeko arauetan finkatua).

Udalaren eskumena, aurrekontuak onartu eta likidazioa egiteko, bai eta lanpostuen zerrenda, plantilla eta enplegu publikoaren eskaintza onartzeko.

Udalak eta haren kontuhartzaitzako zerbitzuek sarbide informatiko libre “on line” dute kontabilitate informazio osoa jasotzeko, bai eta, egoki irizten diotenean, erakunde autonomoetan daukaten dokumentazio fisikoa ikusteko ere.

Kontuak aldizka ematea (Aukean hilero eta Iturbiden hiruhilero), aurrekontua betearazten dela jarraitzeko.

Kanpoko Auditoriak egitea, Udalak erakunde autonomoei kontuak auditatzearekin batera, urteko izaeraz, 1996az geroztik (udalbatzarraren akordioa).

Azken batean, agian erakunde autonomo hauek murriztuago dauzkate eskumenak, beste udalerrri batzuekin alderatuz gero, ia oso-osorik kudeatzen baitituzte alde aurretik kontuhartzetik salbuetsitako gastuak, Udalbatzarrak ezarrirako kontrol mekanismo batzuekin eta urtero kanpoko auditoria pasatzen dutenak (gaur arte, ez du detektatu aipatzeko moduko akatsik); bestalde, kontrol sistema hori da gehien erabiltzen dena Gipuzkoako udaletan.

Nolanahi ere, izaera orokorreko arazo bat denez, hobetu daitekeena, Udalak uste du interesgarria dela HKEEren gomendioa eta adierazten du asmoa duela lantalde bat sortzeko proposatzea, interesa duten udalen artean, eta HKEEren eta Foru Aldundiaren aholkularitzarekin; horren bidez erakunde autonomoak eta Merkataritza Sozietateak kontu hartu eta kontrolatzeko eredu teorikoa sortzea izango litzateke helburua, eta Legean datozen agindu eta baldintzak betetzeaz gain, azkar eta egoki erantzuteko udalen beharrei.



II.3 – KONPROMISOKO KREDITUAK

Urte anitzeko izaerako gastu konpromisoak hartu dira 2002ko urtean, baina exekuzioa ez da hasi urtealdi horretan.

Ez gatoz bat HKEEren interpretazioarekin, eta doktrina dago (Aranzadi – Aurrekontuak eta Kontabilitatea) esaten duena “a partir de la entrada en vigor de la Ley 13/1995, de 18 de Mayo, de Contratos de las Administraciones Públicas debe entenderse derogado el requisito de que la ejecución se inicie en el propio ejercicio puesto que el apartado 3 de su artículo 70 (actualmente art. 69) establece que los expedientes de contratación podrán ultimarse incluso con la adjudicación del contrato y su formalización correspondiente, aun cuando su ejecución, ya se realice en una o varias anualidades, deba iniciarse en el ejercicio siguiente”.

Bestalde, eta aurreko atalean aipatutako eztabaida aparte utzita, LRHLan nahiz aurrekontua betetzeko arauetan jasota dagoen “exekuzioko” baldintzari buruz HKEEk egiten duen interpretazioa, aurrekontuko “O” fasearekin paralelismo bat ezartzen baitu, Udalaren iritziz, interpretazio hori eztabaidagarria da eta ez dago oinarrituta legezko testu batean ere, eta ez da egokia sortu ditzakeen arazoengatik, izan ere, Udalak (eta txostenak egin behar dituzten aholkulariek), urte anitzeko konpromisoak hartzeko orduan, zaila dute segurtasun osoaz ziurtatzeko obra bat urte barruan “exekuzioa” hasi egingo dela, hau da, obaren fakturak onartuko direla urtealdian.

Adjudikazio akordioak eta aurrekontu erreserba izan eta urtealdian obligazioak errekonozitu ez diren kredituen kasuan, HKEEren irizpidearekin jarraituz gero, galdera izango litzateke zer jardun garatu behar dugun, hartutako konpromisoaren kontabilitatea bakarrik deuseztatu?, baliorik gabe utzi kontratazio espediente osoa eta espediente berria hastea?, udalbatzarrak (edo Organo eskudunak) akordio berria hartu, hartutako konpromisoak berriro berresteko?

Udalaren iritziz, Arrasateko Udalaren jarduna legera egokiturik egon da, Organo eskudunak onartuz hartu dira konpromisoak, HKEEren txostenean aipatzen diren kasu konkretuetan, udalbatzarraren akordioaren bidez, inbertsioen exekuzioa hasita dago urtealdian, proiektua onartuz, onartuta daude baldintzen agiria eta obren adjudikazioa, eta hartutako konpromisoen kontabilitatea mantendu behar da urte bukaeran, ordainketa kredituetan nahiz konpromiso kredituetan, nahiz eta ez onartu obra ziurtagiriko kopururik.

II.4— DIRU SARRERAK

II.4.1 – *Isurketak kontrolatzeko sistema bat ezarri beharra ur sarea erabiltzen ez dutenentzat.*

Komeni da esatea udaleko ur sarea erabiltzen ez duten edo abonaturik ez daudenentzat Ordenantza Fiskalean aurreikusitako tarifa zela gehiago tarifa teorikoa praktikoa baino, Saneamenduko azpiegituren erabilera kobratzeko baitzen (Deba eta Aramaio erreketako interzeptoreak), horiek abian jarri eta gero.



2004ko urtera arte ez dira bukatu Deba errekaoko obrak eta aurten hasiko dira Aramaio errekaokoak; horregatik ez da aplikatu tasa 2004 arte.

Aurten tasa aplikatzeko eta neurtzeko beste sistema batzuk falta direnez, Administrazioak (Ur Konfederazioa, Eusko Jaurlaritza) emandako ur kontzesioei buruzko dokumentazioa erabili dugu, bai eta kontzesio partikularretatik datozen ur kontsumoak kolektore publikora isurtzen interesa izan duten enpresa guztiek egin behar izan duten zinpeko adierazpena ere, eta pentsatzen dugu prozedura horrekin arrazoiz konpontzen dela HKEEk planteatzen duen gomendia.

II.4.2 – Aukea – *Ezin izan dugu justifikatu Erakunde Autonomoak aplikatutako tarifak “arrazoizkoak” izatea.*

Nahiz eta ez dakigun zehatz-mehatz zertaz ari den atal hori, uste dugu planteatzen duela agiri-euskarria falta dela, erakunde autonomoek abonudunei aplikatutako tarifak zuzen aplikatzen diren ala ez justifikatzen duen agiri falta, hain zuzen ere.

Horri buruz, adierazi behar dugu erakunde autonomoak eskatu eta artxibatzen duela tarifa orokorrari buruz (ikasleak, federatuak eta baliabide ekonomiko urriekin diren zergadunak) hobariren bat edo murrizteren bat daukaten tarifan agiri-euskarria, eta aldi berean eguneratu egiten du, urteko izaeraz, familia abonudunen informazioa, familia unitateko kideen adinaren arabera.

II. 5– PERTSONALA

II.5.2 – Erakunde Autonomoei atxikitako pertsonala. *Erakunde Autonomoen pertsonal egitura erregulatu eta doitzeko komenigarritasuna.*

Bat gatoz HKEEren gomendioarekin. Edozelan ere, komeni da adieraztea orduan garaian saiatu ginela eta ez zutela izan emaitza positiborik, izan ere, inplikaturako funtzionarioak ez zeuden ados eta nahiago izan zuten Udalak berak kontrataturik jarraitzea.

Hala ere, uste dugu beharrezkoa dela erregularizazio hori; Udalak pentsatuta dauka horri buruzko akordioa hartzea.

II.5.3 – Lanpostuen zerrenda. *Aldi baterako lan legepeko langileak sartzeari behar ez bezala.*

Nahiz eta legez aurreikusten ez den lanpostu horiek sartzeari Lanpostuen Zerrendan, Udalak uste zuen eta uste du ez duela kaltetzen; bestela gertatzen da, informazio gehiago ematen du eta agiri hori hobeto erabil daiteke langileak kudeatzeko tresna moduan, agiri horretan sartzen dira egonkortasun batekin denbora baterako kontratatzen ziren eta aldi bateko langileen bidez betetzen ziren lanpostuak.



II.5.4. – Jenerozko ordainketak. Ez deklaratzera Foru Ogasunari.

Ordainketa horien garrantzi ekonomiko urria aparte utzita, arazo hau Gipuzkoako udalerrri guztietan gertatzen da, IZFEk diseinatutako aplikazio informatikoak ez baitu ahalbidetzen deklarazio hori.

II.5.5 – Langileentzako maileguak. Urtealdian aitortzen den eskubide moduan emandako aurrerakin osoa behar ez bezala erregistratzea.

Aurrerakinen izaeratik, 22 hil baino luzeagoa ez den epe batean itzulgarriak, eta kobratzekoen kontrola errezago eta hobeto egiteko, Arrasateko Udalak “2000ko urtealdiko itxiera jardunaldietan” adostutako irizpidea aplikatuko du, Foru Aldundiak antolatutako jardunaldietan, eta Gipuzkoako udal gehienek parte hartu zuten hor, gai horretan espezialista den enpresa auditorea eta kontsultorearen aholkularitzarekin batera.

Halaber, jasota dago irizpide hori Aurrekontuak betearazteko arauetan.

II.6 – KONTRATAZIOA (HALABER, A.18 ERANSKINEAN AIPATUA)

Alegazio idatzi honen hasieran onartu dugu formazko hainbat akats dagoela, baina adierazi behar dugu bakarrik Arrasateko Udalak asmoa duela 2004an egiteko behar direnak horiek zuzentzeko. Edozelan ere, kontratazio mahaiari buruzko formazko akats jakin batzuk erlatibizatu egin daitezke, kontratazio gaietan erabaki guztiak Kide Anitzeko Organoetan hartu baitira (Udalbatzarrean eta Gobernu Batzordean), eta horietan bai egon dira bertan udal idazkaria nahiz udal kontuhartzailea.

Bestalde, txostenean adierazten diren gomendio guztietatik ez gatoz bat, edo behintzat uste dugu eztabaidagarriak direla, hauek:

II.6.1 – Esperientzian oinarritutako hautaketa irizpideak aplikatzea behar ez bezala

Onartzen badugu ere gaur arte horri buruzko jurisprudenzia argia egon dela, duela gutxi Europako Batasuneko Lehen Instantziako Justizia Auzitegiak, 2003ko otsailaren 25eko emandako epaian, adierazi du “la experiencia y la capacidad técnica de un licitador y de su equipo, la frecuencia en la realización de proyectos del mismo tipo que el del contrato en cuestión y la calidad de los subcontratistas propuestos son todos ellos elementos cualitativos que, en caso de no alcanzar el nivel requerido por el contrato, puede provocar retrasos en la ejecución de las obras o que sean necesarias obras complementarias”.

Azken batean, onartzen du esperientzia kontratuak adjudikatzeko irizpideetako bat moduan, eta aurreikus daiteke Kontratazioko Kontsulta Batzordeak nahiz Epaimahaiek jasoko dutela Europako Justizia Organoetatik datorren doktrina berria.

II.6.2 – Eskaintzak baloratzeko, azpiirizpideak erabiltzea, Klausula Administratiboen Agirian sartu barik zeudenak.



APKLren 86. artikulua jasotzen du, klausula administratibo partikularren agirietan ezarriko direla adjudikatzeko oinarri izango diren irizpide objektiboak, eta jasotzen du horien zerrenda ireki bat. Agindu horrek xedatzen du irizpide horiek goitik beherako ordenan adieraziko direla, eta horiek egingo direneko proposamenen balorazio fasean zehaztuko direla. Ez du ezer esaten artikulua horrek irizpideak xehekatzeko beharrari buruz, ez eta agirietan azpiirizpideak jasotzeari buruz ere, nahiz eta argi dagoen adjudikatzeko irizpideak gauzatzeak eta puntuazioa emateak errekeritzen dutela, kasu guztietan, balorazio lan bat, metodologia, xehekapen eta azterketa xehatu batez eta dagokion txosten teknikoaz.

Horregatik, Udal honek, eskaintzak baloratzerakoan ahalik eta objektibotasun handiena bermatzeko eta puntuazioa emateko unean azterketa teknikoagoa, objektiboagoa eta inpartzialagoa izan dadin, xehekapen eta azterketa xehatua egin ohi du, plikak ireki baino lehen, adjudikazio irizpideenak; xehekapen eta azterketa hori eskaintzen balorazio faseari dagozkio eta, horregatik, ez dago legezko obligaziorik dagozkion agirietan jasotzeko.

II.6.3. – Zuzeneko erosketa 17 hornitzaileari, jateko produktuak erosi izan, 139 mila euroan. Kontratuaren xedearen zatikapen desegokia.

Ez gatoz bat iritzi honekin, okela, arraina, fruta, barazkiak, arrautzak, esnekiak, kontserbak, produktu izoztuak, edariak eta abar moduko produktuak hornitzea kontratu bakar moduan hartu behar direla, izan ere, interpretazio horrek talka egiten du aurrez aurre merkatuaren errealitatearekin, hornitzaileen gremioak bereiztuta baitaude.

Bestalde, kasu askotan, benetako zailtasuna egongo litzateke kontratazio aldia zehazteko eta kontratuaren helburua bera zehazteko, produktu horiek gorabeherak izan baititzakete prezioetan, eta denbora osagai garrantzitsua izan dezakete (barazkiak, arraina eta abar). Hortaz, hornitzaileek, ziur aski, ez lirateke egongo prest aldi luzeetarako kontratatzeke, edo litekeena da, kontratatu arren, merkatutik desagertu izana eta ezinezkoa izatea horiek hornitzea.

Laburbilduz, ez dago zatikapenik, hornitzearen zenbatekoak (urteko fakturazio moduan hartuak), ia guzti-guztiak tramitatu daitezke kontratu txiki moduan, eta hainbat kasutan zalantzan jar daiteke bideragarria izatea urteko (edo gehiagoko) izaerako kontratu epe bat.

II.6.4. – Hasierako aurrekontuaren %61,86 aldatzea, San Frantzisko komentua zahar-berritzeko obretako kontratuan.

HKEEren iritziz, halako neurri handiko kostuen gehitzeak dakar kontratuaren xedea aldatzea.

Horri buruz, begi bistakoa da desbideraketa handi hori ezin dela kalifikatu egoera normal batean, eta, izan ere, gorabehera berezi batzuen ondorioa izan da, eraikinaren monumentu historikoa izatearen ondorioz. Horrek ekarri du, obrak egitean sortutako ustekabe batzuen aurrean, zahar-berritzeko eraikuntza metodo jakin batzuk (Foru Aldundiak hala eskaturik) erabiltzea, ia-ia eskulangintzakoak, eta horrek garestitu egin du obra hori ikaragarri.



Ustekabe horiek sortu ziren unean, obraren %30 (miloi bat eurotik gora) inguru egindako obra bat izanik, pentsatu zen ez zegoelako benetako alternatibarik (edo horiek arazo handiagoa ematen zuten ikuspegi ekonomiko, teknikitik eta erantzukizun ikuspegitik) obrarekin jarraitzeko hasierako adjudikaziodunarekin baino, eta Udalak uste du erabaki hori, salbuespenezkoa bada ere, legez bat datorrela eta legearen barruan sartzen da, izan ere, kontratua aldatuz gero hasierako prezioaren %20tik gora, BEZ sartu barik, edo hasierako proiektuaren aldaketa garrantzitsua izanez gero, kontratua hausteko arrazoietako bat bada ere, horrek ez du automatikoki jarduten, baizik ahalmena ematen zaie alde biei kontratua hausteko, honelako gorabeherak izaten direnean, - hori gertatzen da %20tik beherako kontratua edo garrantzirik gabeko kontratua aldatzen zenean ez bezala; halakoetan kontratista, aldaketarekin bat etorri ez arren, beharturik egongo litzateke kontratua betetzen, baldintza berrietan.

II.6.5. – Prezioak hirutan berraztertu dira, Kontratazio Organoak onartu barik.

Gorabehera hori egiazkoa bada ere, komeni da esatea KPIren aplikazio zorrotzagatik berraztertu direla, hau da, izaera objektiboko berrazterketa bat, eztabaidaezina eta ia automatikoa; udal honek uste du akatsa ez dagoela berrazterketa onartzeko erabili den sisteman, baizik ez dela sartu kontratazio organoaren akordioetan (Udalbatzarrekoak edo AUKEAren Zuzendaritza Batzordekoak), berraztertzea onartzeko ahalmenaren delegazio aurreikuspena beste organo edo pertsona batzuetan. Horrela, delegazio horren bitartez lortzen da arinago eta azkarrago eta ez hain era burokratikoan funtzionatzea, eta era berean behar ez den atzerapenik ez izateko fakturak onartzean.

II. 7. – DIRULAGUNTZAK (halaber, A.8 eranskinean aipatua)

Udalak onartzen du hobetu egin behar dela alderdi hori, eta udal korporazio berriak eman ditu dagoeneko lehen urratsak, detektatutako gabeziak erregularizatu eta zuzentzeko direnak. Horrela, gaur arte erabaki hauek hartu dira:

Gobernu Batzordearen akordioa, 2003ko azaroaren 10ekoa, 2003ko urtealdiari dagozkion irizpideak, baldintzak eta justifikazio epeak ezartzen dituena.

Udalbatzarraren akordioak, 2004ko maiatzaren 31 eta uztailaren 26koak, hurrenez hurren, hasiera batean eta behin betiko onartzeko akordioak, Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, dirulaguntza gaietan ematea, kudeatzea eta aplikatzeko diren gainerako alderdiak erregulatzen dituena.

Halaber, irailean onartu nahi dugu 2004ko urtealdirako Udalak onartutako dirulaguntza programa guztien deialdi publiko orokorra.



III – FINANTZA AZTERKETA

Konklusioa – Udalak, oraingo inbertsio kopuruak mantenduz gero, kanpoko finantzaketara jo beharko du.

Bakarrik adierazi behar da kanpotik finantzatzeko behar hori izango dela, edozelan ere, udal kontrolari lotutako aldagai bati buruz hartutako erabakien ondorioa, hala nola, egin beharreko inbertsioen bolumena. Bestalde, Udal honek uste du normalean inbertsio erritmoa (une honetan, HKEE k berak dioen moduan, antzeko biztanleria duten udalen aldean oso goitik dauden mailetan) murriztu egingo dela, “larregi”tzat edo “ez egoki”tzat jo daitekeen zorpetze maila batera iristen den unean.

IV – ERANSKINAK

A-19 – ITURBIDE EGOITZA ERAKUNDE AUTONOMOA

A.19.1 – Formalizazio falta, Ordenantzak ezartzen duen bezala zorra errekonozitzearen eta zorrak ez kobratzearen agiriarena.

Aipatu dugu arazo hau lehenago, obligazioen idatzi honetako (I.1.1) iritzi atalean, eta adierazi dugu ere sinatuta daudela dagoeneko zorra errekonozitzeko agiriak.

Hala ere, lehengoa egoera berbera da zorrak kobratzeari buruzko egoera, izan ere, kobratzeko arazoa dator egoitzadunaren ezintasun ekonomikotik edo kaudimen gabeziatik.

Horri buruz, eta alde batetara utzita zorraren errekonozimendua formaz agiri batean jaso edo ez jaso, erakunde autonomoak zorraren jarraipena egiten du eta gestioak egiten ditu kobratzeko. 2002-2004 aldian kobratu edo errekonozitu dira zor batzuk, 24.000 euro inguruko zenbatekoa, eta aurreikusita dago 2004ko urrirako 7.800 euroko zorra kobratzea eta gutxitzea.

Azken batean, zorra ondo-ondo kontrolatuta dago eta aldiro-aldiro dagozkion gestioak egiten dira, hura kobratzen saiatzeko, nahiz eta gestio horiek emaitza positiboak izan, salbuespenez bakarrik.

A.19.2.- Zorrari dagozkion diru sarrerak ez errekonozitu eta ez kontabilizatzea.

HKEE k planteatzen du diru sarrera horiek aurrekontuan kontabilizatu behar direla, eta urtero, hala badagokio, zalantzako kobraketa doitzea.

Udalaren iritziak, kasu honetan bezala, baldin eta kaudimengabe “hutsa” diren zordunen talde batekin bagaude, zorra agiriz errekonozitu izanak suposatzen barik kaudimengabezia hori aldatzea, iruditzen zaio udalari egokiagoa Erakunde Autonomoak gaur arte jarraitu duen prozedura, hau da, zorra erregistratzea kontabilitate lagungarri batean, eta horrela behar bezala identifikaturik eta zenbaturik geratzeko, bai zorra bera bai zordunak, baina kopuru horiek pasatu barik aurrekontuaren kontabilitatera.

Zenbateko horiek kontabilitatera pasatzeko aukera, gure ustez, onuragarria baino gehiago kaltegarria da, arrazoi hauengatik:



Alta emanez gero, berehala baja emateko kontabilitatean, balioetsitako edo egiaztatutako kaudimengabeziagatik, alferreko lana eta lan burokratikoa baino ez litzateke izango.

Zorra agiri errekonozitzean, balioetsiko balitz ez dela baja eman behar kontabilitatetik, kobratzeko dauden saldo kopuru bat izango genuke (egoitzadun batzuek Egoitza 1983an martxan jarri zenetik), eta horrek ekarriko luke ezin kudeatu, edota neurri handi batean desitxuratu egingo luke Erakunde Autonomoaren kontabilitate informazioa.

Azken batean, zordunen kaudimen ezaugarriak ikusirik, uste dugu helburu berak betetzen direla eta interes publikoa ere babesten dela, formula askoz ere errazagoa eta praktikoago baten bidez, hau da, zordunak eta zorra erregistratzea kontabilitate lagungarri batean.

A.19.3. – Iturbide Egoitza Erakunde Autonomoaren superabita 2002an

Ados gaude HKEE k adierazitakoarekin, “aurrekontu”ko superabita dagoela baino esaten ez duena (baina ez da errealia – falta dira zeharkako kargak, egitura eta amortizazio kargak), 33.000 eurokoa, baina superabit horren izaera argitze alde, komeni da azaltzea 2002ko urtealdian sartu dela 2001 eta 2002ko urteetako Diputazioa – Gizartegintzaren dirulaguntzak erregularizatzearena, 2001eko urtealdiari dagokion fondo ekonomikoaren likidazioa zenbatzeari buruzko errekurtsua erabaki eta gero.

A.19.4 – Pertsonal gastuak – ordainketa egitura ez zaio egokitu Euskal Funtzio Publikoaren Legeari.

Udalaren pertsonalari buruz I.1.B atalean egindako alegazioan adierazitakoa aipatzen dugu hemen.

A-20 – AUKEA ERAKUNDE AUTONOMOA

A.20.1 – Pertsonal gastuak – ordainketa egitura ez zaio egokitu Euskal Funtzio Publikoaren Legeari.

Udalaren pertsonalari buruz I.1.B atalean egindako alegazioan adierazitakoa aipatzen dugu hemen..

A.20.2 – Erretiro partzialak, legezko estaldura ez duen lizentzia.

Udalaren pertsonalari buruz I.1.B atalean egindako alegazioan adierazitakoa aipatzen dugu hemen.



ALEGACIONES A LOS RESULTADOS DE LA FISCALIZACION DEL AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON CORRESPONDIENTE AL EJERCICIO 2002

1.- ALEGACIONES QUE FORMULA EL ACTUAL ALCALDE, EN REPRESENTACION DEL AYUNTAMIENTO DE ARRASATE

INTRODUCCION

